

ELKARRIZKETA: NEUS SANMARTI • ESPERIENTZIA: LONGAR PROIEKTUA •  
EKARPENAK: SORTZEN IKASBATUAZ • GALDEIDAZUE: KEN ZEICHNER •  
GURE SUSTRAIAK BASERRI ESKOLA • ATZEKO ATETIK: IÑAKI PERURENA

**hh**  
**hik hasi**

**155**

**4 EURO • 2010EKO OTSAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA**



**GAIA**

**MYRTHA CHOKLER**  
**Haur txikien mugimenduaren genesisia**

# Heldu literaturari

www.elkarargitaletxea.com



**NEMESIOREN TRIKITIXA**  
Pako Aristi • Javi Kintana

+8 urte



**ATZERAKA NABIL**  
Lutxo Egia • Eider Eibar

+8 urte

**KANPOKOA NAIZ ETA ZER?**

Seve Calle ja • Eider Eibar

+8 urte



**BESTE GU**

Asier Mendoza • Ivan Mata

+12 urte



**BUELTA BAT AITONTXUAREKIN**

Xabier Mendiguren • Patxi Gallego

+10 urte



+8 urte

**ESAN, AMA, NORK EGITEN DITU UMEAK?**

Janosch

**elkar**

# aurkibidea



**8**  
gaia

## HAUR TXIKIEN MUGIMENDUAREN GENESIA

Buenos Airesko Psimotrizitate Eskolako zuzendariak haurren garapen goiztiarrean mugimendu askatasunak duen garrantzia azpimarratu zuen. Han esandakoak bildu ditugu hurrengo orrialdeotan.



**18**  
elkarrizketa

## NEUS SANMARTI

Neus Sanmarti katalanak zientzietatik abiatuta, ebaluazioa, hizkuntzaren ikaskuntza eta kompetentziak landu izan ditu. Bide horretatik, ikas-irakaskuntza osoan eragiten duten elementuak ditu ikergai eta hizpide.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

**MYRTHA HEBE CHOKLER**

HAUR TXIKIEN MUGIMENDUAREN GENESIA

**18** elkarrizketa

**NEUS SANMARTI**

**26** esperientziak

Longar proiektua

Vianako hirugarren adinekoei emanaldia

**29** ekarpenak

Sortzen Ikasbatuaz

Hezkuntzari erasoaldiaren irakurketa eta erantzuna

**32** galdeidazue

Zer esango zenuke irakasleen prestakuntzaren gainean?

Ken Zeichner

**35** berriak

**40** nora joango gara?

Gure Sustraiak baserri eskola

**42** Atzeko atetik

Iñaki Perurena

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiro, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-01-26). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
HIK HASI egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitetz!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia


Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala otsaila

## Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua



**Hik Hasi gehi beste 63 euskarazko hedabide.**

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik eman korrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globale-ra egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskerari ugari eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizar-te eta kultura modernoren geroan giltzarri da hedabideen zeregina. Printzi-

pio eta helburuetan letra larrizaitortzen da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundeen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, gureen aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektrotresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konple-

xua sortzeraino ere bai agian. Orain, ostera, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilero soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi dut amainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

# kronika

**Sexu bereizketa egiten duten ikastetxeek diru-laguntza publikorik jaso ez dezaten, Espainiako Gobernuak Tratu Berdintasunerako eta ez-Bereizkeriarako aurreproiektua aurkeztu zuen urtarrilaren 14an, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastetxeetan eragingo du. Neskak eta mutilak banatzen dituzten ikastetxeek diru publikorik ezingo dute jaso aurrerantzean, eta ondorioz, ezingo dute ikastetxe itundu izan. Aurrerantzean ere sexu bereizketa egiten duten ikastetxeak legezkoak izango dira, baina ez Jaurlearitzatik eta ezta Nafarroako Gobernutik ezingo dute jaso dirurik. Lege proposamen honen hurrengo xedea, etorkinak onartzen ez dituzten ikastetxeei ere diru-laguntza publikoak kentzea izango da.**



Berria

## **Bordeleko errektoretzak sail publikoan 29 irakasle postu kenduko ditu**

Datorren ikasturtean murrizketa handiak egingo ditu Bordeleko Errektoretzak Departamenduko sail publikoan: 29 irakasle postu kenduko ditu irailean lehen mailan. Lehen mailako haurren izen ematea apirilean bukatuko da, baina dagoeneko lanpostu murrizketa erabaki du Bordelek. Haurren jaiotza-tasaren apaltzea eman du Philippe Couturaud Paueko Akademia ikuskariak irakasle postu kopurua jais-teko arrazoitzat.

Departamendu mailan, 2010ean 2008an baino 380 haur gutxiago eskolatu ziren Departamenduan, eta datorren ikasturtean iaz baino 300 haur gutxiago espero dituzte. Funtzio publikoan lanpostuak aurrezteko xedea dutez Frantziako hezkuntza agintariak,

gela bakoitzean biltzen den haur kopurua emendatu dute. Gaur egun, Pirinio Atlantikoetan 23 haur biltzen dira gela bakoitzean, akademia ikuskariaren arabera, eta Frantzian aldiz, 24; ondorioz, agintaritzak dio murrizketa handiagoa izan zitekeela.

Funtzio publikoan murriztuko duten irakasle kopuruak eragina izango du Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin, nahiz eta apirilean izen-ematea bukatzen den arte ezingo den jakin argi eta garbi murrizketa honek nola eragingo duen. Dena den, sindikatuek aurreratu dute irakasle lanpostuak murriztuko dituzten herrietan mobilizazio handiak izatea aurreikusten dutela. Giroa berotzeko, lehen protesta-elkarretaratzeak egin dituzte dagoeneko Baionan eta Pauen urtarilean.

Testuinguru guztiz frantsesean euskaraz ikasi nahi duten haurrei eragingo die bereziki murrizketa honek, eredu elebidunean ikasle kopurua emendatuz Frantziako Hezkuntza Ministerioa euskararen kalitatearen kaltean ari dela salatu baitute sindikatuek. Murrizketa hauen atzean zerbitzu publikoen eskaintza eskastuz ikasleak eredu pribatuetara bideratzu nahi dituztela leporatzen diote sindikatuek Frantziako Gobernuari.

## "Ebaluazioak zoriontzeko aitzakia izan behar du, ez errepresiorako aitzakia"

Javier Murillo



### Ehun biktimaren lekukotzak eskoletan erabiltzeko prestatu ditu Jaurlaritzak

Bizikidetzaren Demokratikorako eta Indarkeriaren Deslegitimaziorako Planari loturiko material didaktikoa aurkeztu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Material horren barruan, "mota guztietako indarkeriaren biktimen" ehun lekukotza jaso ditu, eta hainbat formatutan antolatu du ikastetxeek erabil dezaten. Beste aldetik, "terrorismoaren biktimak" eskoletara joan ahal izateko programa garatu du Jaurlaritzak eta 14 biktima batu ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gela beren bizipenak kontatzeko prest leudekeenak.

Lekukotza hauekin "terrorismoaren arbuioan" hezi nahi ditu Isabel Zelaak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak ikasleak, "biktimizekiko empatia

eragin, eta indarkeriaren aurkako jarraipiztuz".

Aurreko Hezkuntza Sailak eginiko plana moldatu du Zelaak, kritika ugari-  
ren erdian. Baina berak EAEko Eskola Kontseiluaren hitzak erabili ditu programa hau babesteko: "Indarrean zegoen curriculumak hobetu dugula onartu du".

#### Irakasle "neutralak"

Zelaak "terrorismoaren arbuioan" jarri du arreta berezia, baina Xabier Etxeberria Deustuko Unibertsitateko Etika Gelako irakasleak adierazi du biktima guztiak aintzakotzat hartzen saiatu direla, "beti ere heziketa helburuak betetzeko" baliagarri izan daitezkeen heinean, "eta ez doktrinatzeko politikorako". Emakumeen aurkako indarkeria, xenofobia, eskola jazarpena edota homofobia pairatu dituzten biktimen ekarpenak ere bildu ditu Jaurlaritzak programa honetan. Dena den, curriculum aldaketarekin, "terrorismoaren biktimak" lehenestea erabaki du Zelaak.

Bizikidetzaren planak irakasleari "neutraltasuna" eskatzen dio, "gizartean bezala" ikasgeletan askotariko pentsaera eta ideologiak daudela onarturik, irakasleak indarkeriari legitimaizazioa kendu eta neutraltasunari eutsi behar diola nabarmentzen du Etika irakasleak.

Sare publikoko ikasleek 50.427 ikastordu galdu dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzak ordezkapenak ez betetzeko erabakia hartu zuenetik, LABek egin duen zenbaketa arabera. Hezkuntza sailak irailean abiatu zuen UGT eta CCOOrekin sinaturiko akordioa, eta ondorioz irakasleen bajak eta baimenak betetzeko araudi berriak zuloak uzten ditu irakasleen absentsian. Haur Hezkuntzan lehen egunetik ordezkatzeko da baja, baina Lehen Hezkuntzan hirugarren egunetik edo laugarrenetik aurrera, eta Bigarren Hezkuntzan bosgarren egunetik aurrera. Ondorioz, 50.427 ordu bete gabe, galdu egin dituzte ikasleek hiru hilabetetan. Ordezkapen sistema berriaren ondorioz, 630 langilek ez dute aukerarik izan hilabetean ordezkanepek egiteko, LABek zenbatu duenaren arabera.

# ***G A I A***

**Mirtha Chokler**

*Haur txikien mugimenduaren genesisia*







**Agnes Szanto doktoreak hauxe dio: "Guk, profesionalok, guraso helduok, haurren-gandik ikas al dezakegu? Haurrek zerbait erakusten al digute guri, eta ez soilik guk haiei?" Galdera interesgarriak dira. Horiexei erantzuten saiatu zen Mirtha Hebe Chokler psimotrizista argentinarra Hik Hasik antolatutako jardunaldietan. "Haur txikien mugimenduaren behaketa" izan zen aztergai eta hizpide. Buenos Airesko Psimotrizitate Eskolako zuzendariak haurren garapen goiztiarreen mugimendu askatasunak duen garrantzia azpimarratu zuen. Han esandakoak bildu ditugu hurrengo orrialdeotan.**

## Haurren mugimendua jaiotako unean bertan hasten da

Jaioberritan dugun mugimendu askatasun horren garrantziari buruz, psikismo goiztiararen eraikuntzari buruz pentsatzeko eta gogoeta egiteko puntu asko daude. Hau da, azken batean, subjektibotasunaz edo norbera izatea deritzogun horri buruz.

Zein dira subjektuaren barne baldintzak eta horrentzat sortzen dugun giroaren kanpo baldintzak (giro materiala, objektuen giroa, egiturarena; haur bat oinez ibiltzeko segurua ez den toki batean egongo balitz, oso zaila izango litzateke zutitzea)? Hau da, baldintza materialak eta emozionalak daude.

Eta haurrek hezte prozesu horretan dituzten gaitasun eta ahalmen horiek errespetatzen ez direnean sortzen diren arriskuak ere aipatuko ditut.

Enuntziatu bat hartuko dugu abiapuntutzat: haurra, jaiotzen denetik, subjektu ekintzailea da, ez soilik erantzuten duen subjektua. Funtsezko elementua da hori guretzat. Subjektu ekintzaile hori munduan dago, mundua mugitzen du, mundua aldatzen eta bultzatzen du, eta ez da soilik beste baten estimulari erantzuten dion subjektua.

Irudika ezazue egoera hau: haurtxo jaioberri bati, bere kasa uzten zaio amaren gainean. Eta zer egiten du bere bizitzako lehen 15 minutuetan? Amaren gainean mugitzen hasten da bere baliabide guztiak martxan jarrita herrestatzeko, titibururaino iritsi arte gora egiteko; toki horretaraino zehazki, ez du beste toki batean xurgatu. Titibururaino joan da zehazki, ziurrenik genetiko-

ki programatutako eta usaimenak edo ezagutzen ez dugun beste mekanismo neurofisiologiko batek aktibatutako erregistroren batean jasota duelako; 15 minutuko bizia duen haurtxo horrek bere bizitzan funtsezkoa den muturreko esperientzia hori bizi izan du, bera bakarrik, bere kabuz, sentitzeko gai izan da eta bere beharra ase du.

Esperientzia horretan, zer da haurraren ekarpena, eta zer bestearena?

Beharbada, garrantzitsua da pentsatzea, horren txikia izanda ere, haurtxo horrek bere azalean bizi, esperimentatu eta sumatu ahal izan duela sentitzeko gai dela, behar bat barnertzeko gai dela, eta behar hori ase nahi izan duela.

Zuetako askok samurtasuna sentitu du horrelako eszena bat irudikatuta, eta harridura ere bai batzuetan, haurtxo horren gaitasuna eta ahalmena ikusita liluratuta sentitu zaretela. Eta, beraz, samurtasun hori, emozio hori, miresmen hori, amak ere sentituko du, eta, beharbada, aitak ere bai, aurrean baldin badago, eta mediku taldeak, obstetrikalariak, eta jaiotza ikusi duten erizainek, gertaera berezi eta sortzaile hori, haurtxoaren biziaren gertaera egituratzaile hori haurtxoak berak bizi dezan baldintza materialak, espazialak, denborazkoak, emozionalak eta afektiboak sortu dituztenek, hain zuzen.

Haur horrek motrizitatea ez du bizi soilik mugitzeko, tokiz aldatzeko edo objektuak hartzeko; aldiz, aurkitzeko, esperimintatzeko, ezagutzeko, ulertzeko, komunikatzeko eta ikasteko ere



# G

# Mugimendua eta pentsamendua

bizi du, hau da, den bezalakoa izateko eta pentsatzeko bizi du motrizitatea. Pentsatzeko eta pentsamendua eraikitzeko, hain zuzen ere.

Beraz, mediku talde horrek haurtxo jaioberri bati buruz eta horren gaitasunari eta ahalmenei buruz irudi bat izango du, eta, beharbada, beste mediku talde batek, ospitalean edo beste toki batean haurtxo bati azkar-azkar jaiotzen lagundu dion mediku talde batek, haurtxoa jaiotze eta berehala bildu, hartu eta jaioberrien gelara eraman duenak, eta handik bi ordura berriro amak bularra eman diezaion ekarri duenak, oso bestelako irudia izango du. Orduan, haurtxoa erdi galduta, erdi lotan dela, zirikatuta egingo dute, bularra xurgatzeko erreflexua duen ikusteko, bularrean jarriko dute... Hau da, haurtxoaren beste irudi bat ikusiko dute, ez dakien edo ezin duen haurtxo baten irudia, oraindik baliabide horiek ez dituen haurtxo batena. Haurtxoak ez du esperientzia hori bizitzeko eta trebatzeko aukerarik izan, eta, ziurrenik, gaitasun hori berehala desagertuko da, eta denbora pixka bat igaro beharko du berriro agertzeko, haurraren beste heltze aldi batean.

Horrekin guztiarekin esan nahi dut, guk, helduok, bitarteko gisa, prestatzen dugula haurtxoak iristen diren mundua, guk dugun ordena sinboliko honetan, kultura honetan, jakintza, mito, sinesmen eta zientzia hauetan oinarrituta sortzen dugu haurrek beren gaitasunak garatu ahal izango dituzten mundua edo, alderantziz, haurrei gaitasun horiek garatzeko aukera emango ez dien mundua; azken kasu horretan ez dakien haurra sortuko da, mendeakoa, eta helduaren bidez ikasiko du, baina heldu horrek erakusten diona ikasiko du soilik.

## Haurraren mugimendua eta pentsamendua

Gure maisu handietako baten esaldi bat ekarri nahi dut gogora, Henri Wallonena (psikomotrizitatearen sortzailea, harengatik ez balitz ez litzateke psikomotrizitatea diziplina edo praktika gisa existituko munduan).

Henri Wallonek esaten zuen, haurraren mugimendua dela haren bizitza psikikoaren froga. Eta hitza agertzen den arte horrela dela. Nik esango nuke areago doala, eta hitza agertu ondoren ere horrela dela. Izan ere, hitza agertzen den unetik hitza nagusitzen den unera arte, arrazoibidea bere burua adierazteko funtsezko elementu bihurtzen den arte, denbora luzea igarotzen da. Urte eta erdierekin, bi urterekin edo hiru urterekin, haur batek gorputzarekin hitzarekin baino gehiago adierazten baitu oraindik.

Beraz, motrizitatea, bestearen begirada ernearen aurrean, mugimenduen adierazkortasun bihurtzen da. Mugimenduaren adierazkortasuna Bernard Acouturier-en kontzeptu bikaina da, eta nik behin eta berriro erabiltzen dut. Mugimenduaren adierazkortasun hori, haurrak esperientzia bizi duen bitartean pertsona helduren bat begira duelako existitzen da soilik, eta pertsona heldu horrek haurraren bizipenak haurraren adierazpide bihurtzen ditu, mugimendu horrek haurrari buruz zer bait esaten du. Orduan, bestearen begirada erneak haurraren bizipena, esperientzia, aldatu egiten du eta haurraren adierazpide, adierazkortasun, bihurtzen du. Subjektuaren historiara iristeko sarbide pribilegiatua da, haur hori ekintzaren subjektua den edo beste

norbaitek bultzatutako subjektua den ikusteko, beste baten menpe dagoen eta haren esana egiten duen edo aurre egiten dion aztertzeko, edo soilik bestearekin lotuta dagoen, bestearekin atxikita dagoen.



Beraz, haur baten motrizitateari begiratuta, haur horren historia, mugimenduen askatasunaren historia, aurki dezakegu. Adibidez, toki zail batetara igozko gai izan den haurtxoaren kasuan: gorputza luzatzeko gai da, orekari eusteko, gorputzeko sinergia guztiak kontrolatzeko eta doitzeko, oin punte-



kin birak ematen dituen eta gurpilak dituen objektu batetara iristeko eta objektu hori kontrolatzeko. Hau da, bere gorputzaren oreka kontrolatzeaz gain, luzatu egiten da arnairu bat ireki ahal izateko, eta gainera, objektua ere menperatzen du. Hau da, mugimenduaren askatasuna erakusten digu horrek, gorputza erabiltzeko aukera, zuhurtzia, gorputz bat eraikitzeko aukera; eta bere buruan duen segurtasuna adierazten du, beste historia bat duenaren aurrean, traketsa denaren aurrean, desberdina.

Gure planteamendua hauxe da, beraz: haurraren gorputzaren bitartez haur horren historiaren berri emateaz gain, haurraren pentsamendua ere ikus dezakegu. Mugimendua ikusten dugu, mugimenduaren diskurtsua, eta, mugimendu horrekin hasten, zabaltzen, hedatzen edo adierazten denaren bidez, haurraren irudikapen mentalak ikus ditzakegu. Hau da, haurraren pentsamendua zein den iker dezakegu, haurraren pentsamendu eredu edo pentsatzeko era zein den. Haurraren nahia eta helburua zein diren ikusteaz gain, pentsamendua nola antolatzen duen ere ikus dezakegu: objektua gerturatu behar duen jakiteko, nola igo behar duen, nola hartu behar duen, jaitsi behar badu objektuaren mugimendua nola doitu behar duen, gero hobeto mugitzeko... Mugimenduari lagunduko dioten irudikapenak nola ikusten diren. Haurraren mugimenduaren bitartez horren pentsamendua ikus daiteke, beraz.

Eta haurraren mugimendua eta pentsamendua ikusten ditugunean, beste alderdi bikain bat ere aurki dezakegu: haurraren psikismoaren egitura dialogikoa. Hau da, haurrek beren buruekin hitz egiteko duten gaitasuna.

## Oreka eta desoreka: segurtasun sentipena

### Zer da postura segurtasuna?

Orekak ematen duen barne sentipena, pertsonala. Gorputza nahi dugun moduan erabil dezakegu eta eroriko ez garela sentitzen dugunean gertatzen da.

Praktika txiki bat proposatuko dizuet. Zutitu zaitezte eta ez ukitu ezer, ez bermatu gorputza atzean, aurrean edo ondoan duzuen jarlekuaren kontra. Itxi begiak eta aztertu zutik nola zaudeten. Aztertu zer sentitzen duzuen, sentitu oinak zoruaren gainean nola dauden bermatuta, oinen arteko tartea, hankek egiten duten indarra? askotan ez dugu horretan erreparatzen?, bizkarra, orekari eusteko sorbaldetan, lepoan, besoetan edo eskuetan dituzuen tentsioak edo uzkuak. Sentitu gorputzak egin behar dituen mugimenduak, zorabiatuta sentitzen delako edo ezin duela sentitzen duelako... Erronka dela pentsatuko dugu: ea, aurrera, egin dezakezu. Orain, itxi begiak eta jarri oin puntetan, orekari eusteko inon bermatu gabe. Aizue! Zergatik egiten duzue barre? Ea, ea! Ez da erraza, ezta? Begiak itxita, ez egin tranparik. Ummmm! Gora, gora, oin puntetan, eutsi hor, eutsi... Oin puntetan, zer gertatzen da? Zergatik irekitzen dituzue begiak? Gora, gora, altxa ondo, begiak itxita, oin puntetan, oraindik ez dugu amaitu... Erraz egiten duzuenok, postura horretan eroso zaudetenok, oin puntetan eta hanka bakar baten gainean jar zaitezkete. Aaaaa! Itxi begiak. Ea, eutsi. Aupa! Ezin duzuenok, bi oinen gainean jarri. Ondo. Oin puntetan, begiak itxita, eutsi hor goian.

Orain, problema bat ebatzi behar

duzue. 17 kaxa ditut, eta kaxa bakoitzak 23 botila ditu. Zenbat botila ditut guztira? Ea, bada, hortxe, oin puntetan zaudetela, begiak itxita, 17 kaxa, 23 botila. Ez jaitsi oinak, ea, pentsatu, pentsatu apur bat. Zer? Ezin duzue? Zenbat dira? Ezin duzue? Ez.

Zer egin nahi duzue orain? Eseri egin nahi duzue? Ea, bada, eser zaitezte. Aaaaaa!

Zer sentitu duzue oin puntetan zeundetenean eta heldu batek "ea, eutsi, egin dezakezu" esaten dizuenean? Zer sentitu duzue? Zer esperimentatu duzue? Segurtasuna? Segurtasun falta? Segurtasun falta, ezintasuna, larritasuna, mina, zorabioa... eta, ziurrenik, baita amorrazioa ere, norbaitek "ea, bada, eutsi gogor" esaten zizuelako. Asko zarete, eta sentipen eta emozio ugari sentituko zenituzten; zuetako bakoitzak begiak irekiko zituen ahal izan duenean, edo oinak lurrean bermatuko zituen, hau da, segurtasun falta handia sumatu duzuen oin oreka bilatuko zenuen segurtasuna lortzeko.

Zuen ustez, zer sentituko du oraindik berez eserita egoteko gai ez den haurtxo batek, eserita ezartzen duzuen eta erori egiten dela sentitzen duenean? Eta besteek zutik jar dezaketela sentitzen duenean, berak menderatzen ez duela sentitzen duenean? Zuen ustez, zer bizipen izango du une horretan? Zer esperimentatuko du, zer sentituko du? Eta zer sentituko du behartutako egoera horretan ezartzen duen pertsona helduarekiko, egoera horren aurrean zoriona erakusten dion pertsonarekiko, lortzen ez badu pena sentituko

# Oreka eta desoreka

duen eta gutxietsita sentiaraziko dion pertsonarekiko? Pentsatu apur bat.

Beraz, orain badakizue zein den **orekaren barne sentipena**, guk ez baitugu orekaren barne sentipenik, ez dugu kontzienteki erregistratuta, soilik galtzen dugunean sentitzen dugu. Edo, bestela, oreka galtzeko zorian gaude-nean. Hau da, oreka kolokan dagoenean edo oreka galtzeko arriskuan gaude-nean, orekatzea zaila dela sentitzen dugunean; oinez gabiltzanean, oreka eta desoreka, desoreka eta oreka egoera bizi dugu etengabe. Baina menperatu egiten dugu. Ez gaitu probokatzeko, oinez ibiltzen baldin badakigu, ibil gaitetzen inguru seguru batean, segurua ez den inguru batean baldin bagaude, hemen gertatzen den bezala (jaitsi egin behar dut eta begiratu egin behar dut jaitsi naitekeen edo ez, oso altu dago, heldu egin behar dut edo ez...), segurtasun faltaren sentipena handiagoa da.

Baina, horrez gain, badakigu barne sentipen hori pertsonala eta besterene-

zina dela. Kanpoko inork ezin du esan "hori erraza da". Pertsona bakoitzak ondo baitaki zein diren orekaren barne sentipen hori lortzeko doitu behar dituen indarrak, sentipenak, pertzepzioak, erregulazio tonikoak, gorputzaren pisua eta bermatzeko azalera. Hau da, **oreka sentipena pertsonala eta besterenezina da**.

Oreka faltak edo oreka galtzeko arriskuak eman dezakeen beldur sentimendua, segurtasun falta edo izu sentimendua pertsonala, gizabanako bakoitzarena eta besterenezina da.

Guk haurrak orekari eustera behartzen ditugunean edo horrelako desoreka egoera mehatxagarrietan jartzen ditugunean zer gertatzen den pentsatzen lagunduko digu horrek.

## Oreka fisikoa eta psikikoa

Orekaren barne sentipen hori gure baitak behar duen sostengua da, subjektiboa, norbanakoari ekintzarako prest dagoela sentiarazten diona. Segurtasunik gabeko oreka egoera horretan, desoreka edo zailtasun egoera horretan pentsatzea ezinezkoa dela jabetuko zineten, nik eskatutako kontuak egitea ezinezkoa zela. Horrek esan nahi du **ez dela oreka psikikorik existitzen oreka fisikoaren barne sentimendurik gabe**. Ezinezkoa da oreka psikikoa eraikitzea, inor ez da psikikoki orekatua sentitzen eta ezin da psikikoki orekatua sentitu ez bada fisikoki orekatua sentitzen, ez bada sostengu bat duela sentitzen, ez bada seguru sentitzen, postura segurtasun hori sentitzen ez badu.

Eta, horretarako, beharrezkoa da norberak sinergia guztiak, mugimendu guztiak, gihar guztiak doitzea. Gihar bakoitzak, giltzadura bakoitzak sentipenaren eta mugimenduaren erregis-

troa biziko du eta igorriko du, eta garunak prozesatzaile bakarra balitz bezala prozesatuko du: zenbat indar egin behar duen gihar honetan, zenbat indar egin behar duen bermatzeko, zenbat





erlaxatu dezakeen beste hau, zenbat erabili behar duen beste gihar hura, edo gihar multzo hura.

Egunerokoan gure garunean segurtasun eta arrisku esperientzia horren pertzepzioak, sentipenak, erregistroak eta aztarna mnemikoak eraikitze-kobizi dugun abenturak edo desbenturak, hau da, egunez egun, astez aste, hilabetez hilabete, esperientzia horiek eraikitze-kobizi dugun abenturak edo desbenturak, segurtasun sentimenduaren oinarria sortuko du gure baitan. Adibidez, haurrak arriskuaren aurrean makurtu egin daitezke, hau da, arriskua sentitzen dutenean gorputzaren forma alda dezakete, grabitate zentroaren bermeak alda ditzakete, aurrera joateko, menperatzeko, barne segurtasuna kontrolatzen jarraitzeko.

Horregatik esan dizuet lehen **ezi-nezkoa dela oreka psikikoa izatea oreka fisikoak ematen duen segurtasun sentipenik gabe.**

Horrekin guztiarekin esan nahi dut guk, gure jokabideek edo haur bat jaiotzen denean prestatzen dugun giroak eragina dutela haur jaioberri horrek jasotzen duen munduan, eta haurrak giro horretan elementu ugari biziko dituela; giro horrek harmoniarantz, prestutasunerantz edo gorputz harmoniarantz eraman dezake haurra, edo, aitzitik, trakestasunerantz eraman dezake, kasu horretan agertzen diren ñabardura guztiekin. Izan ere, guk kanpoko hainbat eraikuntza proposatzen dizkiogu haurrari. Eraikuntza horiek nire adiskide Agnès Szantok ikertu ditu.

Eraikuntza horietako bat **grabitatearen indarra da**. Grabitatearen indarra xurgagailu handi bat da, eta gorputza azalera erantz erakartzen du, horizontalerantz. Eta haur batek egingo duen prozesua horixe izango da, hain zuzen.

## Haurraren mugimenduaren prozesua

### Postura bakoitza bere garaian

Zer egingo du haur batek bizitzako lehenengo bi urteetan?

Oreka sistema konplexuak eraiki-kodu ditu, eta, poliki-poliki, eusteko oinarri handiena erabiltzetik, horizontalean berme handiena izatetik eta grabitate zentroa eusteko oinarritik hurbil izatetik, oinarri hori murrizten joango da eta grabitate zentroa altxatzen. Bi urte inguru dituenean (urte eta erdi, bi urte, bi urte eta erdi...), bi oinen gainean edo oin puntetan askatasunez mugitu ahal izateko nahikoa segurtasun emango dioten sistemak eraikiko ditu. Gutako askok ez dugu lortu eraikuntza hori guztiz egitea, lehen egin dugun ariketan ikusitakoaren arabera.

Askatasunez mugitzen ikasi duen haur bat baldin badugu, haur horrek oreka sentimendua eraikiko du, eta baita desoreka sentimendua edo jasan dezakeen arriskuarena ere, eta hori kontrolatu ahal izango du, eta badaki zer ezin duen egin, zer ezin dion bere gorputzari eskatu. Baina guk haur bat hartu eta tripode baten gainean ezartzen badugu, ondoren zutik jartzen badugu, eta ez badiogu askatasunez mugitzen ikasteko aukerarik ematen, ez badiogu birak emateko, gorantz igotzeko edo lau hankan ibiltzeko aukerarik ematen, haur horrek ez ditu biziko postura etzanean bizi beharko litzuzkeen postura guztiak. Beraz, baldintza historikoen ondorioz, haur hori askoz ere baldarragoa izango da, errazago

eroriko da, eta ahalegin handiagoa egin beharko du bere postura aztertzeko, sentitzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta doitzeko.

Beraz, posturaren eta mugimenduaren garapen autonomoaren programa genetiko eta fisiologiko hau erakutsi nahi dizuet, heldutasun biologikoan, orekaren legetan eta mugimenduaren esperientzien kalitatean oinarritzen dena eta Emmi Pikler sendagileak aurkitu zuena; pediatra hungariar ospetsu horrek sortu zuen Budapesteko Loczy institutua, eta lehenengo bere seme-alabekin eta gero pediatra lanean ezagutu zituen haurtxoen hazkuntza prozesuan esperimintatu ahal izan zuen printzipio hau: haurrak ez dira inoiz ezarri behar berez hartu ez duten postura batean. Budapesteko Loczy institututik igaro ziren 5.000 haurrekin eta joera piklertar deritzogunari atxikitako gainerakoekin esperimintatu ahal izan zuen hori.

Hau da, oraindik bere kabuz inoiz eseri ez den haur bat ez da inoiz eserita ezarri behar. Bere kabuz zutitu ez den haur bat ez da inoiz zutik ezarri behar.

Horregatik aurkitu zuen hori, gure kulturaren oso goiz ezartzen ditugulako bertikalean haurrak; ikusi duzuenek, buruari eutsi ezin diotenean ere bertikalean ezartzen ditugu, gorputz enborrak oraindik nahikoa indarez duenean eserita ezartzen ditugu, gorputz ardatzak bere buruari postura horretan eusteko nahikoa indarririk ez duenean; eta beren kabuz zutitzeko gai izan baino

# Mugimenduaren prozesua

askoz ere lehenago ezartzen ditugu zutik.

Erakutsi nahi dizuedana ?azkar samar beharbada? historia horixe da, etzanda, sostengatzeko izan dezakeen oinarri handienaren gainean dagoen haur batekin hasten dena; naturaren programa genetikoak, naturak gure DNAn jarri duenak, nolabait esateko, munduko haur guztiei, inortxok erakutsi gabe, zutitzeko, esertzeko, berriro zutitzeko, oinez hasteko eta korrika ibiltzeko aukera ematen die. Inork ez ditu egoera horretan jarri, baina lortzen dute, funtzio hori eragozten duen elbarritasunen bat edo anputazioren bat ez duten haurrek, behintzat.

## Lehenengo, horizontaltasuna, etzanda

Haurtxoak oso txikiak direnean, prestakuntza garai bat izaten da, oreka doitzeko garai bat, toniko posturalak dira, ahoz gorako etzanera dute, eta postura horretan oraindik heldugabeak dira, mugimendu toniko posturalak nagusitzen dira, haurtxoak oraindik ez daki postura horri nola eutsi.

Eta, orduan, poliki-poliki esperimentatzen hasiko dira, kontrolatzen, gorputz adarren gero eta kontrol toniko eta dinamiko handiagoa izango dute postura horretan. Hau da, besoa mugitzen zaionean zer gertatzen den jabetuko da, zer berme puntu dituen gorputz enborrean. Enborra biratu nahi duenean, biratzeko indarra hartzeko non bermatu behar duen jabetuko da.

Gero, euste oinarri txikiagoa erabiliko dute pixkana, eta, heltzen doazen neurrian, saiheska jarriko dira, alboko etzaneran: alde batera, bestera... Heltzen doazelako, esperientziaren kalitateagatik eta zoruak, hau da, beren eus-

karri den oinarriak edo lastairak, duen kalitateagatik. Izan ere, haurra lastaira bigun baten gainean badago, egiten duen indarra lastairak edo kuxinak xurgatuko du, eta, orduan, oso zaila gertatuko zaio mugitzea. Haurra kuxin baten gainean badago, ez da aldamenetara mugituko, ezin da mugitu aldamentara. Aldiz, gainazal sendo eta lau baten gainean badago, mugitu daiteke alboetara.





Postura horretan, segurtasun osoz, oreka duela sentituz bere barrenean, eskuak zabal ditzake, posturak antolatuta, ikusmena, begi eta eskuen arteko



koordinazioa haur jolasetan. Gero, behin eta berriro egingo dituzten biraketak antolatuko dituzte, ahoz gora dagoenean ahoz behera jarriko da, eta alderantziz; eta postura horietan guztietan, gero eta trebeago azalduko da. Hirugarren postura izango da ahoz behe-rakoa, hirugarren maila adieraziko du, eta heltze prozesu baten bidez iritsiko da postura horretara. Esan nahi du haur txiki bat, jaioberri bat, ahoz behera jartzen badut, haur bat aurrez lehenengo maila egin gabe zuzenean oinarriko eskolako hirugarren mailan kokatuko banu bezala izango dela. Ezintasun egoera batean jarriko dut, heltzeko aukerarik gabeko egoera batean, zailtasun egoera batean, eta ez dakiela sentituko du barrenean, ezin duela, posizio horretan zergatik dagoen ere ez du jakingo, helduak utzi zuelako posizio horretan.

Ahoz behera jarrita, pixkana-pixkana eraikiko dute ahoz behe-rako posizio horretatik iragaten den gorputz enborrean bertikalizazio progresibo hori, eta zuek euskarri edo bermeak antolatuta ikusiko dituzue, eta hedagarritasuna; burua oso astuna da oraindik, baina, ahuspez bere kabuz jartzera iristen denean, hau da, horretarako benetan gauza dela sentitzen duenean, lauzpabost hilabete dituen, edo, zen-





bait kasutan, sei hilabete dituenean, heldua da. Eta sentrazioen etorri horrek guztiak, mugimenduen arintasunak, tonizitateak, aukera ematen die orduan beren buruaren segurtasuna kontrolatzeko.

Haur txikiak eseri egin behar ditugula esaten da askotan, eskuak mugitu eta jolas egin dezaten, neuk ikusi izan dut estimulazio goiztiarreko liburuetan ere. Ahoz gora etzanda eta bermatuta dauden haur guztiak jolas egiten, zerbait hartzen ikusten ditugu guk, ekimen osoz; beren gorputz eskema, beren buruaren unitatea den hori, eraikiz doaz, sentipenaren bidez, ikusmen-pertzepzioaren bidez, oinek, begira ari zaion objektuarekin, eskuekin; hau da, sentipen horrek, inpresio horrek, bere buruaren unitatearen arrasto mnemiko horrek emandako zikurlaritategaren bidez. Down-en sindromea duen haurtxo batek ere, haurtrisomiko batek, gauza berbera egingo du hipotonia izan arren; zailtasunak zailtasun, erabat normala den haur batek erraz egiten duen gauza bera egingo du. Eta Down-en sindromea duen haur berak bira egingo du, ahoz behera jarriko da, jada ahoz behera jartzeko heldutasuna lortzen duenean. Eta begirada azkar horrekin jolastuko da, begirada ireki horrekin, oreka menderatzen duelako eta ez daukalako pentsatzen egon beharrik zer egin behar duen halako lortzeko...

Pixkana-pixkana posturak eraikitzen doaz, eserita, besaurrea bermatuta; hau da, euskarri duten oinarria txikiagotuz, erdi eserita, ukondoaren gainean, besaurrearen gainean edo eskuaren gainean utsiz gorputzari. Down-en sindromea duen haurrak ere gauza bera egingo du, beste haurraren posturaren harmonia berari utsiz. Gainera,

nahi duenean sar daiteke postura horretan, eta, postura horretan sartzen ikasi duenez, badaki nekatzen denean irteten ere; ahoz gora jarri baita, eta bira egin baitu, bestaldera joan baita... Hau da, ez dago helduak zer egingo.

Pixkana-pixkana, gorputz enborra gero eta bertikalago jartzen du, eskuaren gainean bermatuz gorputza, ikus dezakezuen bezala, askatasun osoz, baina grabitate zentroa beti euskarri duen oinarri horretatik gertu duela; eta, ohartuko zaretenez, sekuentzia honetan, pixkana-pixkana eseri egingo da: **garaia baino lehen eserarazi ez dituzten munduko haur guztiek horrela dute bizkarra, horrela esertzen dira, eta ez dute inoiz hartzen bizkar zifosi deritzon postura hori; bizkar zifosi hori, bizkarraren kurbatura hori helduak eragina delako, esertzeko heldutasunik ez duenean helduak eserita utzi duelako sortzen da.**

Postura horretan, sorbalda-gerrikoa aske du, ukitzeko, heltzeko, postura horren egonkortasuna arriskuan jarri



# Etzanetik zutitzera



gabe makurtzeko. Eta esertzeko modu asko eta asko saiatuko ditu.

Gero, zangoak aurrerantz jarriko ditu berehala. Eta zangoak aurrerantz jarzen dituen bakoitzean, bat zuzenduta izango du, eta bestea tolestuta. Baina iskionen gainean egongo da eserita, bizkarra zuzen duela. Zuek haur bat zangoak aurrera begira dituela esertzen baduzue, eta haur horrek oraindik eseritako postura hori, edota iskionen gainekoa, bere egin ez badu, kokzixaren gainean eseri beharko du. Egin proba zeuok. Orduan, bizkarra kurbatu egingo du, eta ez da ongi eserita egongo.



Beraz, haurrak esertzeko milaka modu desberdin esploratuko ditu, eta pentsatu esertzeko modu bakoitzak artikulazioak eta pentsamendu sekuentziak adierazten dituela, “egin dezaket”, “ez dezaket egin”, “horrela bai, egin dezaket”, “horrela probatuko dut” eta horrelakoekin osatutako elkarrizketa egiturak. Haur horri bere buruaz zuen mundu kognitiboa zabaldu egingo zaio, konturatu zarete horretaz; eta baita espazioaz, azalera, gogorra eta biguna denaz, hedaduraz, pertzepzioez, koordinazioaz eta abarrez zuen mundua ere, helduak irakatsi bezala esertzen ikasten duen haurrari baino askoz gehiago.

Eta arriskatu egingo du bere mailan, gozatuz, jolasteko segurtasuna senti-

tzen duen unean; hau da, desorekarekin jolas egingo du, bere barruan bada-kielako desoreka hori kontrolatzeko gai dela.

Hau da, geuk aukeratzen dugu. Zer dugu nahiago, horrela eseritako haurtxo bat, amore eman duela sentitzen duen haur bat, handi goa denean behin baino gehiagotan gimnastika espezializatuarekin zuzendu beharko ditudan posturak hartzen dituen, hemen eserita, inguruan hutsune hori guztia duena, bermatu beharra duena, sendotu beharra duela sentitzen duen haurra, hatz bat ahoan duena..., ondoan heldu bat duena, horrela jarri duen heldua? Edo nahiago dugu garatzen ari den eta segurtasun postura bat eraikitzen ari den haurra, erabat aske denez jolas egiteko aukera duena, esertzeko heldutasuna barneratu duenean eseri dena?

**Izan ere, bada oinarri-oinarrizkoa den printzipio bat: ikaskuntzaren aurretik dago heldutasuna. Eta ezin du inork ikasi, ez badu nahikoa heldutasun, ikasgarazi nahi diogun horretarako. Nahikoa heldutasun lortu gabe norbaitek zerbait ikasteko proposatzen badio, prest egon gabe, prestatuta ez dagoen ekipamendu bat abiarazi beharko du. Horrek, segurtasuna falta, ez dela gai sentiaraziko dio, eta autoestimu zehar pobretuak ez dela ezer adieraziko dio, ezin duela egin..., gorputza ez daukala erabiltzeko prest.**

**Horregatik, ikaskuntzak aurreratzea, gure iritziz, porrotak aurreratzea da. Eta hori funtsezko lege bat da, Henri Wallonengandik ikasi duguna.**

**Eta gero, ibiltzen hasten dira**

Orain, beste aldeia ikusiko dugu, mugimenduaren garapenaren beste





adarra, eta horrek aukera emango digu ikusteko, haur txikiak, aurrez hizketagai izan dugun prestaketa garai horietatik abiatuta, hasierako posturen sekuentzia horietatik aurrera eginez nola hasten diren ibiltzen. Lehenengo lekualdaketatik abiatuko gara, lehenengo lekualdaketa horien bizipenetik, esperientziatik eta mugimendu horiek menderatzera iristen diren unetik, biratzen eta ahoz gorako etzaneran irristatzen hasten diren une horietatik. Alboka jartzen dira gero, ahuspez hurrena, eta ahuspez jartzen hasten direnean, biratzen hasten dira, hau da, alde batera eta bestera mugitzen; horrek mugimendu saioak egiteko, doitzeko, mugimenduen esperientzia izateko aukera ematen die, nahita orekarekin eta desorekarekin jokatzeko; hau da, desoreka egoeran jartzen dira, edo hasierako oreka egoeran, nahikoa segurtasun badutela sentitzen duten bakoitzean. Eta biraka hasiko dira gero, postura batetik bestera aldatzen, alegia. Eta biraka ibiltzea garrantzi handiko lekualdaketa da, bai gorputza antolatzeke eta bai espazioa antolatzeke. Jada ez baitu buruaren noranzkoak bultzatzen, begiradaren antolatzeak baizik: harantz joan nahi duenean, alboka jarri behar du, ez buru puntaren noranzkoan. Horrek itzulgarritasun handia ematen dio espazioan, itzulgarritasun bizi-pen bat du, espazioa antolatu edo beregituratzeko modu bat, zuzenean herrestatuz ibiltzen hasiko balira lortuko luketena baino askoz aukera zabala goa du. Horregatik da lehenagokoa. Eta, gero, ahoz behera lau hankan herrestan ibiltzen hasiko dira, hemen ikus daitekeen moduan; eskuen eta belauen gainean eutsiko diote beren buruari, eta katuka mugitzen hasiko dira.

Eta erreparatu bizipen honetan askatasunari eta zuhurtasunari, gai baitira jada neurtzeko eta gorputzaren pisu osoa noiz jartzen duten jakiteko; eta eskuarekin esperimendatzen dute. Erreparatu postura horren harmoniari. Ez da soilik zer postura hartzen duen, postura hori zer kalitatekin hartzen duen baizik. Horregatik, historiak eta historiak daude.

Gero, eskuen eta oinazpien gainean lau hankan ibiltzea dator; gero, pixkana-pixkana, belauniko jartzea eta belauniko ibiltzea, berebiziko esperientzia, haur guztiak sentitzen dutelako aparteko sentipen hori, lehenengo aldiz gorputz enborra zutik jartzea lortzen dutenean, grabitate zentroa euskarri duten oinarritik gertu dutela; beraz, erortzeko arrisku txikiagoa dute, eta horixe da gorputza zutik dutela egiten duten lehen lekualdatze mota. Aurreko lekualdatze guztiak gorputza horizontalean dutela egiten dituzte, burua soilik izango dute zutik. **Baina, horretarako, ezinbestekoa da mugitzeko askatasuna izatea.**



Eta gero, zerbaiti eutsiz, zutik jarriko dira. Grabitate ardatza zehazki oinen artera doa, eta belaunak tolestuta daude, pelbis-gerrikitik egonkortasuna finkatzeko borroka arteetan egin ohi duten bezala, hain zuzen, horrek egonkortasuna, mugimendua eta sor-



balda-gerrikoa trebatzeko eta antolatzeke aukera ematen baitu, belaunak tolestuta daudelako, hain zuzen.

Aldiz, zutik guk jartzen ditugun haurrek edota eusteko zerbaiti helduta zutik jartzen ikasten duten baina artean heldutasun nahikoa lortu ez dutenek beren belaunak blokeatu egin beharko dituzte zutik jartzeko, eta, beraz, grabitate ardatza oinen aurrealdera zuzenduko dute. Eta, horregatik, grabitate indarrak herrestan eramango ditu.

Hortik aurrera, zerbaiti eutsiz kokoriko jartzen hasiko dira, hau da, grabitate zentroa igo eta jaitsi egingo dute, eta ikusi zeinen desberdin finkatzen duten postura batak eta besteak. Zerbaiti helduta, zutik jarri eta pauso txikiak emango dituzte alboka; eta poliki-poliki ibiltzea izango da haurrari antolatuta dabilela sentitzeko bidea emango dion ibilera, eta ez helduta batetik bestera eramaten direnean eta aurretik dena hutsa denean.

Ezeri heldu gabe zutik jarriko dira gero. Gero, bermatu gabe aurrerantz pausoak ematea eta ibiltzea datoz. Eta jada oinez hasten direnean, oreka dinamiko osoa menderatzen dutela esan nahi du, oreka, desoreka, oina altxatzea, oin baten gainean ezartzea beste oina aurrera eramanez ahal izateko eta abar.

# neus sanmarti

## *ELKARRIZKETA*

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedraduna

“Ebaluazioa aldatzeko, azterketako galderak aldatu behar dira. Ez galdetu ‘Egin lorearen marrazkia, eta idatzi zatien izenak’, hau baizik: ‘Mendira joan garenean, amak esan dit loreak ez puskatzeko. Zergatik?’”



E

**“Ebaluazioak asko baldintzatzen du ikasleak garrantzitsutzat hartzen duena eta ikasi behar duena. Ebaluazioa aldatzen ez bada, ezer ez da aldatzen. Behin baino gehiagotan ikusi ditut, Lehen Hezkuntzan, batez ere, gauza polit asko egiten dituzten irakasleak, proiektuak egiten dituztenak, eta abar. Baina, azkenean, zer ebaluatu duten galdetzen diedanean, eskola tradizionalak balira bezala ebaluatzen dute**

”

Neus Sanmarti katalana doktorea da Zientzia Kimikoetan, eta katedraduna Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Sailean dihardu, eta Hezkuntza Zientzien Institutuko zuzendaria da. Zientzia Esperimentalen Didaktikako Ikertzaileen eta Irakasleen Espainiako Elkartearen kide ere bada. Argi dago zientzien munduak erakartzen duela, eta, horren inguruan, ideia, esperientzia eta proposamen berritzaileak egin izan ditu.

Zientzietatik abiatuta, ebaluazioa, hizkuntzaren ikaskuntza eta gaitasunak landu izan ditu. Bide horretatik, ikaskuntza eta irakaskuntza osoan eragiten duten elementuak ditu ikergai eta hizpide. Besteak beste, liburuetan eta hitzaldietan zabaldu ohi ditu ideiak. Eta, orainoan, Hik Hasiren orrialdeetan ere bai.



**Zergatik planteatzen duzu ebaluazioak hil edo biziko garrantzia duela, nahiz eta horren garrantzi gutxi ematen zaion?**

Oinarrian, ikasleek hau ulertzen dutelako: ikasteko, ebaluatzen dena da garrantzitsua. Ebaluatzen ez dena ez dela garrantzitsua ikusten dute. Orduan, ebaluazioa (kalifikatzeko ebaluazioaz ari naiz orain, beste ebaluazio batzuk ere badaude eta) aldatzen ez bada, proiektuko galderak beti buruz ikasitako galderak baldin badira, sinpleak, batere adituak ez direnak, eta abar, nahiz eta eskolak oso bestelakoak izan, nahiz eta ikasleek parte har dezaten saiatu, nahiz eta proiektuak egin, azkenean ikasleak hau esango du: “Egin dugun guztia ongi iruditu zait, oso ongi pasatu dugu; baina, azkenean, axola duena bezperan ikasi eta hurrengo egunean ahanzen dudana hori da”.

Hortaz, ebaluazioak asko baldintzatzen du ikasleak garrantzitsutzat hartzen duena eta ikasi behar duena. Ebaluazioa aldatzen ez bada, ezer ez dela aldatzen diot nik.

Behin baino gehiagotan ikusi ditut, Lehen Hezkuntzan, batez ere, gauza polit asko egiten dituzten irakasleak, proiektuak egiten dituztenak, eta abar. Baina, azkenean, zer ebaluatu duten galdetzen diedanean, eskola tradizionalak balira bezala ebaluatzen dute. Horregatik, ebaluazioa funtsezkoa dela iruditzen zait.

Edonola ere, kalifikatzeko ebaluazioari buruzkoa da aipatu dugun guztia. Normalean, mundu guztiak ebaluazio horri buruz hitz egiten du, ebaluazio hitza aipatzen duenean. Baina nik azpimarratzen dut ebaluazioaren emaitzak ebaluazio hezigarri osoaren arabera

daudela. Frantsesek horrela deitzen diote, ebaluazio hezigarria, eta nik ebaluazio hezitzailea deitzen diot.

Ebaluazio hezigarrian, doitzeko, ikasleari laguntzeko, gaizki egiten duena hobetzeko eta horrelako gauzak egiteko ardura irakaslearena da. Eta nik uste dut irakasleak beren burua doitzeko gai izan daitezen lortu behar dugula. Hau da, irasleak berak konturatu behar du zer ez duen ongi egiten, zergatik ez duen ongi egiten, eta abar. Horregatik, lehendabizi horrek aldatu behar duela uste dut. Izan ere, hori aldatzen ez bada, azkenean emaitza txarrak ebaluatzeotan, hobe da ez ebaluatzea eta denborarik ez galtzea horretan.

### **Zergatik uste duzu dela horren garrantzitsua horrela lan egitea, jarraipen hori egitea?**

Azken finean, pertsona autonomoek eta ekimena dutenek horixe egiten dutelako: beren burua doitzeko gaitasun hori landu; gauzak nola egiten ari zaren ohartu, zergatik eta zertarako egiten dituzun konturatu, egin nahi duzuna eta egiten ari zarena bat ote datozen ikusi... Hori da pertsona autonomoek egiten dutena. Bestela, menpeko neska-mutilak egiten ditugu, heldu batek esaten die zer egiten duten ongi eta zer gaizki. Beste pertsona baten menpe daude beti.

Hortaz, nola hezi behar ditugu neska-mutil autonomoak? Beren burua doitzeko gaitasuna landuz. Eta, gainera, kooperazioan. Hau da, ez soilik hau pentsatuz: "Hori nola egiten dut nik"; hau ere pentsatu behar dugu: "Nola lagundu behar diet besteei, zer egin dezaket, eta zertan lagun diezadakete besteei niri?".

### **Lan kooperatiboak ikasteko eta irakasteko prozesuan lagundu egiten du.**

Noski. Nik beste bati ikasten laguntzen diodanean, nik neronek ere asko ikasten dut. Eta, beste batek niri ikasten laguntzen baldin badit, gauza bera, ni ere asko ari naiz ikasten. Funtsezkoa da hori.



### **Dena dela, garrantzitsua da ezagutzan alde handiegirik ez egotea ikasleen artean, ezta?**

Bai. Aniztasuna behar da, denak berdinak baldin bagara ez baitago laguntzarik. Baina, Vigotskik zioen moduan, inguruko garapen gunean behar da aniztasuna. Ezin da alde handiegirik egon.

### **Gaur egun, kompetentziak lantzea bultzatzen da. Horrek lagundu al dezake autorregulazio eta autoebaluazio prozesu horretan?**

Nik uste dut oinarri-oinarrian dagoela hori, eta horixe da defendatzen dudana.

Gaitasunen inguruko lanean, lau ardatz daudela diot beti:

1. Norberaren burua doitzea. Oso garrantzitsua.

2. Komunikazioa, hizkuntza. Besteekin batera nire burua doitzeko, besteekin hitz egin behar dut, esplikatzen egin behar diet, nik neure buruari ere esplikatzen egin behar diot. Arlo guztietan landu behar da hizkuntza. Ez da Hizkuntza ikasgaiko kontua soilik.

3. Talde lana. Ikaskuntza soziala baita. Eta, horretaz konbentziturik egon behar dugu. Irakasle askok ikaskuntza indibiduala dela pentsatzen du, ikasle bakoitzak ikasten duela. Eta ez. Besteekin batera ikasten dugu. Nik besteekin konparatzen dudanean ikasten dut; alegia, nik pentsatzen dudana eta haiek pentsatzen dutena gauza bera den edo

ez ikustean. Besteak ez baldin badaude, ezinezkoa da ikastea. Beraz, garrantzitsua da talde lana.

4. Garrantzizko ezagutza. Nire ustez, eskolan lan gehiago egin da informazioarekin ezagutzarekin baino. Eta uste dut bien arteko aldea nabarmendu egin behar dela. Ikasliburuetan eta eskolan egiten den asko informazioa eskaintzea da, kopiazea, buruz ikastea, ahaztea... Aldiz, lan gutxi egiten da ikasleen burua antolatzen, ongi antola dezaten laguntzen. Beste modu batera esanda, gauza asko ikastea denbora galtzea izan ohi da. Nahikoa da oinarriko ideia gutxi batzuk, argiak, funtsezkoak, baina indartsuak ikastea, eta gero, horiek lantzea.

### **Nola gabilta lau gai horietan? Barneratuta al ditugu? Lantzen al ditugu?**

Talde lana ulertzen da, baina askoz hobeto ulertu behar dela uste dut. Ez baita taldeka lanean jartzea, besterik gabe, baizik eta elkarri eragitea. Eta bigauza desberdin dira. Elkarri eragiteko, aurrena pentsatu egin behar dut, bestela ezin diogu elkarri eragin. Beraz, eskola askok talde lana taldeetan jartzea dela uste dute, eta ez da hori.

Hizkuntzaren edo komunikazioaren gaian, denok ados gaudela uste dut, baina, gero, hori nola egiten den beste gauza bat da.

Ebaluazioaren edo norberaren burua doitzearen gaia ulertzea gehiago

E

“**Testu liburuetan eta eskolan egiten den asko informazioa da, kopiatzea, buruz ikastea, ahaztea... Aldiz, lan gutxi egiten da ikasleen burua antolatzen, ongi antola dezaten laguntzen. Beste modu batera esanda, gauza asko ikastea denbora galtzea izan ohi da. Nahikoa da oinarrizko ideia gutxi batzuk, argiak, funtsezkoak, baina indartsuak ikastea, eta gero, horiek lantzea**”

kostatzen da, baina bagoaz.

Zailena laugarren ardatza da, garrantzizko ezagutzak irakastearena. Asko kostatzen da onartzea bizitza guztian irakatsi dudanak ez duela balio, eta beste gauza batzuk irakatsi behar ditudala. Urrun gaude hortik.

### **Lau ardatzak ezagututa, zein prozesu bete behar da gaitasunak lantzeko?**

Egokiena proiektuen bidez lantzea iruditzen zait. Adibide bat jarriko dut. Lehen Hezkuntzako 6. mailan, basoko suteen inguruko gaia landu genuen.

Hasteko, arazoa planteatu genuen, eta gero, zer jakin behar genuen. Ez genuen prebentzioa landu, beti horretaz hitz egiten da eta. Sute bat gertatu ondoren zer egin behar zen landu genuen.

Egunkariko berri batetik abiatu ginen. Handik gertuko herri batean, baso batean izandako sute baten ondoren, bildu egin ziren elkarte batean, eta proposamenak egin zizkieten administrazioari, inguruan erre zen basoa berri-zezaten, ez baitzeuden ados egin ziren gauza batzuekin. Orduan, ikasleei haxe galdetu genien: “Elkarte horretako partaide bazinete, zer proposamen mota egingo zenukete, eta zergatik?”

Hortik abiatuta, hasteko zer jakin behar dugun eztabaidatu genuen (horixe izango litzateke gaitasuna): “Ni halako banintz, zer egiteko gai izango nintzateke? Zer proposatuko nuke?”

Abiapuntu horretatik, galdera ugari egiten hasten dira: zer dagoen basoan, zer zegoen erre aurretik, lehen zegoenak zer behar duen berriz ere haz dadin... Horrelako galderak egin behar dituzte beren burua doitzen ikasteko, hau da, beren burua doitzen jakiteko. Horretarako, helburuak argi eduki behar dira: ez baldin badakizu zer bait zertarako ari zaren ikasten, alferrik da. Kasu horretan, helburua basoa lehen-goratzea zenez, erre aurretik zer zegoen jakin behar zuten.

Horrela, bada, galderei erantzuten hasi ginen. Taldeetan bildu ginen, eta batzuek basoan bizi ziren ugaztunak margotu zituzten, beste batzuek, berri-



zuhaitzak; eta horrela, denon artean, maketa bat muntatu genuen. Orduan, eztabaidatzen hasi ginen: “Animalia horrek zer behar du bizitzeko eta hazteko?”. “Ura, jateko ez dakit zer, babesleku bat...”. Eta erantzun horiek honako galdera edo ideia orokor honekin lotu genituen: “Zer behar dute izaki bizidun guztiek bizitzeko?”. Galdera horren erantzunak edozein egoeratarako balio du, erretako basoen kasurako, desagertzeko arriskuan dagoen dortoka mediterranearren kasurako zein beste edozein kasutarako.

Hari horretatik tiraka, hausnarketa hauekin segitu genuen: “Denek elikatu behar dute; eta, zer esan nahi du elikatzeko? Denek ugaltu behar dute; eta, zer esan nahi du horrek? Denek dute besteen beharra, erlazionatzeko beharra; eta, zer esan nahi du horrek?”. Galdera horiei erantzutea ez da informazioa edukitzea, ezagutza eskuratzea baizik, eta transferi daitekeen ezagutza da, hots, beste kasu batean erabil daitekeen ezagutza. Eta ezagutza horrek arazo asko interpretatzeko balio du.

### **Hori guztia ahoz lantzen al duzue? Alegia, ahozko hizkuntza erabiliz?**

Hasieran bai, hitz eginez ateratzen dugu ezagutza hori dena. Lehenengo, animaliak ukitzen dituzte, bigarren, maketan jartzen dituzte, eta hirugarren, horretaz hitz egiten dute.

Horren ondoren, hizkuntza idatzira pasatzen gara. Izaki bizidunek hazteko zer behar duten hausnartzen dugunean, zer pentsatzen dugu? Ideia abstraktu batekin hasten gara, jada ez baitugu baso zehatz batean edo sute konkretu horretan pentsatzen; abstrakzioa egiten eta idazten saiatzen gara.

Horren ondoren, berriro hizketan hasten gara. Baso zehatz horretara itzultzen gara. Ideia horiez hainbeste hitz egin ondoren, pentsatzen dugu ikasleak gai izango direla barneratzeko eta beren buruarekin horretaz hitz egiteko.

Argudioak ematen hasten dira orduan: hegaztiak itzul daitezten, janaria behar dute, eta, horretarako, zuhaitzak behar dira. Batzuek hegaztiez hitz eginen dute, beste batzuek basurdeez, beste batzuek landareez... Egingako ideia horiekin argudiatzen dute abstrakzioa.

Azkenean, proiektu horretan, proposamenak bidali zizkioten hasieran aipatutako elkarte hari: "Guk uste dugu..., iruditzen zaigu egokiak izango liratekeela proposamen hauek...". Horrela, gutun bat idazten ikasi zuten: ongi argudiatuta, pauso guztiak ongi idatzita...

### **Nola ikasten dira kontzeptuak edo edukiak, horrelako proiektu batean?**

Aurrera egin ahala. Adibidez, zientziaren gaiari dagokionez, izaki bizidunek hazteko zer behar duten eztabaidatzen hasten bagara, izaki guztiek zer behar duten landuko dugu. Eta transferi daitekeen ezagutza da hori. Horrez gain, gutun bat idazten ikasi zuten. Matematika ere landu zuten, maketa egiteko animaliak proportzioan egin behar izan zituztelako (hasieran, basurdea eta hegaztia neurri berekoak egin zituzten). Eduki edo kontzeptu askotarikoak aterako dira, eta maila abstraktura eramaten saiatzen gara beti, arazo edo gertaera zehatz horretan soilik ez gelditzeke. Esate baterako, proportzioa zer den ikasteak proiektu horretarako eta etorriko direnetarako balioko die.

Adibidez, 5 urteko haur batek honako hau galde dezake: "Nola bizi da txita bat arrautza barruan?". Galdera hori eginen badu, esan nahi du oso ongi egin duela honako ideia honen abstrakzioa: izaki bizidun guztiek arnasa hartu, elikatu... egin behar dute. Ideia hori barneratuz, beren buruari galdetuz, galdera onak sortzen dira barnetik, ez irakasleak azaldu dituenak.



LHko 3. mailan, gaia landu eta handik 3 hilabetera, zuhaitz bat ikusi, eta haxe galdetu zuen haur batek: "Nola hartzen du arnasa enborrak?". Inoiz ez genuen hori azaldu, baina zuhaitzen enborrek arnasa hartzen dute.

Kontzeptu bat egoera anitzetan aplikatu dezakete, eta hori da interesatzen zaiguna. Eta, horixe da, hain zuzen ere, ongi lantzen ez dena. Horregatik diot edukiak ere oso ongi landu behar direla.

Adibidez, "Lore bat jarri, eta zer galdetzen duzue?", galdetzen diet irakasleei. "Lorearen marrazkian zatiak idazteko", erantzuten dute. Eta hori da loreari buruz irakasten duguna, ez besterik. Hori esanguratsua al da?

Azterketarako galdera bestelakoa baldin bada, beste gauza batzuk irakasten dira. Galdera honako hau izan daiteke: "Mendira joan garenean, amak esan dit loreak ez puskatzeko. Zergatik?". Hori da sozialki esanguratsua. Zergatik interesatzen zait lorearen zatien izenak jakitea?

### **Nola aukeratu proiektuetarako gaiak? Eta nork? Irakasleek ala ikasleek?**

Ez nago ados haurrek proiektuak aukeratzearekin, askotan telebistan ikusten dutena errepikatzen baitute. Eta sozialki esanguratsua diren gaiak bila-

tu behar dira. Adibidez, ikasleek piraten gaia aukera dezakete, eta landu daitezke. Baina, gure kasuan, Katalunian, gai hori lantzen baduzu, lan handia egin behar duzu, hori sozialki esanguratsua den gai batekin lotzeko.

Nik uste dut aukeratzen den gaiak edo edukiak sozialki esanguratsua diren gertaerak, egoerak edo arazoak esplikatzeko balio behar duela. Nik beti esaten dut Lehen Hezkuntzan proiektu interesgarriekin lan egiten duten eskola asko daudela; baina proiektu guztiak ez dira baliagarriak. Esan bezala, sozialki esanguratsua diren gaiak bilatu behar dira. Esate baterako, herritartasun orokorrari lotutako gaiak, herrialde baten kultura, ekologia, osasuna... Sozialki esanguratsua diren gertaerak interpretatzen laguntzen dute modu horretako ezagutzek. Gainera, eskolak interes arlo berriak bultzatu behar ditu, eta ez soilik erreproduzitu.

### **Ikasgai guztietan Hizkuntza lantzearen aldekoa zara. Ez dute hori denek horren argi ikusten. Zer planteamendu eginen duzu?**

Bai, ulertzen dut denak horren aldekoak ez izatea. Duela urte batzuk, ikas-tetxe batean, beren hizkuntza proiektua osatzea erabaki zuten, eta zer egingo zuten ere erabaki zuten. Sustapen

“ Hizkuntza da ikasteko oinarritzko bitartekoa, tresna bat da, eskoletan hitz egin eta idatzi egin behar delako. Vigotskik zioen hori. Ondo jabetu behar dugu, tresna erabiltzen jakin gabe, ezinezkoa dela beste irakasgaiak ikastea ”

batzorde bat sortu zen, eta batzorde horrek egiten zituen proposamen guztiek zerikusia zeukaten hizkuntza ikastearekin. Horrenbestez, arau asko finkatzen ziren: zer zaindu behar dute irakasle guztiek? Ortografia, lexikoa... Joko arau batzuk finkatu ziren, eta denek partekatu behar zituzten. Hori zen egiten zutena.

Handik 6 hilabetera, iraultza handia etorri zen. Irakasleek uko egin zioten hori egiteari. Zergatik? Gehienek esaten zuten Hizkuntza alorrekoek eskola ordu asko zeuzkatela hori lantzeko, eta beraiek ez zutela beren orduetan amore emateko asmorik. “Guk ordu gutxi dauzkagu; eta, gainera, Hizkuntzakoen gauzak egin behar al ditugu?”, galdezen zuten.

Gauzak horrela, zuzendaritzakoek gonbidatu ninduten, eta Zientziako eta Matematikako mintegietan izan nintzen, nire ikuspegia azaltzen. Nire ikuspegiarekin ados zeudela esan zidaten, hots, ikusi egin behar genuela zer esan nahi zuen hizkuntza proiektuak eta denek partekatua izateak.

Izan ere, helburua hizkuntza ikastea da, bai; baina irakasleek, arlo guztietako irakasleek, jabetu behar dute irakasleek hobeto ikasten dituztela arlo guztiak, hizkuntza ondo landuz gero, ez dela soilik hiztegia, lexikoa, gramatika... ikastea. Hori besterik egiten ez bada, irakasleek lehen esan duguna esango dute: “Hori ez da nire lana”. Garrantzitsua iruditzen zait alderdi hori argitzea.

Beraz, zer da irakasle guztien artean parteka daitekeen hori? Ikastetxeetako hizkuntza proiektua sortzeko oinarria.

Hizkuntza da ikasteko oinarritzko bitartekoa, tresna bat da, eskoletan hitz egin eta idatzi egin behar delako. Vigotskik zioen hori. Ondo jabetu behar dugu, tresna erabiltzen jakin gabe, ezinezkoa dela beste irakasgaiak ikastea.

### **Baina jakintza arlo bakoitzak bere hizkuntza eredia edukiko du.**

Bai, hala da, eta ideia hori ere ez da go horren hedatua. Jakintza arlo bakoitzak bere hizkuntza eredia dauka. Zientziari buruz hitz egitea ez da Mate-



matikari,

Gizarte Zientziei edo Literaturari buruz hitz egitea. Hots, jakintza arlo bakoitzak bere hizkera berezia dauka. Esparru bakoitzak bere hizkera espezifiko du.

Eta horrekin batera, bada beste ideia bat ere: ezin dira ikasi, alde batetik, hizkuntza eredia eta, bestetik, arloari dagozkion gaiak. Ezin da bakoitza bere aldetik ikasi. Biak aldi berean ikasi behar dira. Ezin da esan: “Orain, halako eskola ordutan, zientziari dagokion hizkera irakatsiko dut, eta, gero, zientziako edukiak irakatsiko ditut”. Biak aldi berean landu behar direla iruditzen zaigu.

Azkenik, azpimarratu nahi nuke aipatu dudan guztiaren helburua ez dela hizkuntza ikastea. Helburua, Zientziako irakasle gisa, Zientzia ikastea da, noski. Baina, zalantzarik gabe, guk egiten dugun guztia eginez, ikasleak, beste gauza askorekin batera, hizkuntza bereganatzen ari dira, eta kultura, eta inguruan duten guztia.

### **Nola hasten zarete hizkuntza proiektua finkatzen?**

Abiapuntu nagusia hauxe izaten da: argi izatea denok ez gatozela bat. Hau da, ikasleei zerbait esplikatzeko eskatzean, irakasle bakoitzak bere ideiak dituzte esplikatzeari buruz. Hizkuntza-generoarekin zerikusia duten eskariak askotariko ikuspuntuak biltzen dituzte. Horregatik, lehenik eta behin, irakasleek ados jarri behar dute. Adostasuna lortu behar da, koherentzia bat, ikasleei gauza bat eskatzen diegunean, denok gauza berbera eskatzeko.

Hori ikusita, hizkuntza eredia osatzen dugu. Jakintza eremu bakoitzak berea dauka. Adibidez, baso baten aurrean, hainbat gauza esan ditzakegu: “Pentsa ezazu poeta zarela; deskribatu basoa”; edo, “Pentsa ezazu geologoa



zarella; deskribatu basoa”. Bietan objektua eta eskaria berberak dira, baina sortu behar dituzten testuak zeharo desberdinak dira.

Beste egiteko bat askotariko aditzen zerrenda egitea izan ohi da. Izan ere, irakasleek beti “esplikatu, esplikatatu...” aditza erabiltzen dute. Hori eskatzeko, egokia izaten da aditzen zerrenda osatzea, eta baita aditzen esanahia adostea ere. Uste baino zerrenda oparoagoa ateratu ohi da: arrazoitu, argitu, azaldu, justifikatu, definitu, laburtu, kontatu, alde-ratu, frogatu, azaldu, hipotetizatu...

### **Zer lantzen da horrela, hizkuntza ala zientzia?**

Askoz hobeto hitz egiten ikasten dute, eta, aldi berean, zientzia ondo ikasten dute. Ez harritu. Irakasleei “arlotzietatik hizkuntza lantzea” horixe dela esplikatzen zaienean, bat egiten dute. Aldiz, esaten baldin bazaie “arlotzietatik hizkuntza lantzea” ortografia eta abar lantzea dela, gehiago kostatzen zaie beste alorretako irakasleei proiektu partekatu horietan sartzea.

### **Hizkuntza eredu askotarikoak ere ikasten dituzte.**

Horrekin zerikusia dauka testuingurua bereizten jakiteak. Testuinguru bakoitzak berari dagokion eredu hitz egitea eskatzen du, eta hori ere landu egin behar da.

Horregatik, ikasleek beren burua kokatzen jakin behar dute, eta horixe lantzen dugu txikitatik. Jabe daitezela zein den objektua, eta jakin dezatela hizkuntza eredu berezi bat aktibatu behar dutela. Hau da, gauzak esateko, komunikatzeko, deskribatzeko, kontatzeko... askotariko moduak dauzkatela aukeran. Hori oso garrantzitsua izan da, lan egiteko garaian. Gaztetxo gehienak ez dira ia inoiz ongi kokatzen, eta antzera hitz egiten dute testuinguru batean zein bestean.

### **Nola lantzen da ikuspegi kritikoa, hizkuntzaren aldetik eta arlotzietatik?**

Abiapuntua da kritikoki irakurtzea datu edo iritzi bat; edota hitzaldi bat entzun, eta kritikoki aztertze gaitzatea.

Lehendabizi, hizlaria edo idazlea nor den pentsatu behar dugu, zertarako idazten duen, zer dagoen atzean, zein den haren helburua, nork ordaintzen dion...

Bada beste ardatz garrantzitsu bat: ongi bereiztea zer den iritzia, zientifikoki oinarritutako argudioa, ikuspuntu bati erantzuten dion argudio ideologikoa, arrazoi etikodun argudioa... Artikulu bat irakurtzen dutenean edo hitzaldi bat entzuten dutenean, argudioen zerrenda egiten dugu, zer-nolako argudioak diren jakiteko: iritzia, datu baten oinarritutako argudioa... Askok lantzen dugu hori.

Adibidez, egunkarietako iragarkiekin hasi ginen. “Krema zoragarria da”, “Honek oso ondo garbitzen du” eta horrelakoekin. Zera hasi ginen galdetzen: “Hori idatzi duenak sinesten ote du idatzi duena? Bai edo ez? Ba ote daki? Zergatik eta zertarako idatzi ote du? Zein da haren helburua?” Eta, horrela, ikasleak pentsatzen hasten dira.

Gero, Al Gore-ren filma ikusi genuen eta, gauza bera, galderak egiten hasi ginen: “Nor da Al Gore, zergatik egin du film hau, zer irabazten du hori eginda? Ematen dituen argudioak frogatuta al daude? Argudiatuta al daude? Zer dira, iritziak edo datuak? Hori horrela den edo ez frogatzeko inork?”

Interneteko informazioa ere baiez-tatu egin behar dute: grafiko bat aurkitzen baldin badute, beste bat bilatu behar dute alderatzeko. Esate baterako, Harvardeko Unibertsitateko ikerketa batek esan du Internetek kutsatu egiten duela energia asko kontsumitzen duelako eta CO2 asko sortzen delako; Googlek, aldiz, ezetz dio. Bada, bien argudioak ikusten ditugu.



**PISA neurketaren gainean aldeko eta kontrako iritzi ugari dago, baina, maila batean, mundu guztiak hartzen du erreferente gisa. Nire ustez, neurketak dituen ezaugarriengatik, lagungarria izango zaio Bigarren Hezkuntzari gaur egungoa baino askoz ere aurrerakoiagoa izateko.**

## LONGAR proiektua

### Vianako hirugarren adinekoei emanaldia

**Erentzun ikastolako proiektuari LONGAR izena jarri zioten herriko gain altuenak izen hori duelako. Han, trikuharria dago eta haize-errota jarri berriak ere bai; hau da, bertan, iraganak eta orainak bat egiten dute.**

#### Konpetentziak lantzen

Konpetentziak landu nahi genituen eta konpetentzia horiek lantzeko teoria garrantzitsua bada ere, praktikari eman genion lehentasuna. Aurreko esperientzietan bizi izan dugunez, askotan, teoriak landu izan dira, curriculumak egokitu, baina ez dute gero behar luke ten praktika eta bizipena izan. Hori ekiditeko, oinarri teorikoarekin batera,



Fultxo Crespo, Vianako (Nafarroa) Erentzun ikastolako irakaslea

praktikan gauzatzea nahi izan dugu, eta haren gainean hausnartu eta lan egin. Ikastetxeko proiektu kurrikularrak berritu behar direnez, gelako lanetik abiatuta egin nahi dugu.

Duela hiru urte, konpetentzien gaineko oinarrizko prestakuntza teorikoa egin genuen zer zen ulertzeko. Izan

ere, gure irakaskuntza nahiko akademizista da. Esango genuke, azken urteotan hizkuntzaren arloa konpetentzien bidetik jorratu dela, baina gainerako arloak ez. Komunitate zientifikoak ez du onartzen hain erraz konpetentzien ildo. Esate baterako, DBHn, hizkuntzen irakaskuntzan konpetentzien bidera salto egin badute ere, beste arloetan, matematikan, adibidez, kostatzen ari da. Duela gutxi, matematikarien biltzarra egin da Nafarroan, eta oraindik ere matematika matematikarengatik landu behar dela agertu da, eta ez konpetentziak lantzeko eta bizitzarako balio duen zerbait praktikoa gisa.

Matematikako komunitate zientifikoko kide batzuk orain hasi dira onartzen konpetentzien bidez lana egin behar dela, eta ez hain era akademikoan.

Gure hausnarketa bestelakoa da. DBHn ere, eta arlo guztietan, konpetentzien bidez jorratu behar dela ikusten dugu. Egiten ditugun lanek gero aplikatzeko balio behar dute. Ikasketa bakoitzak erabilera izan behar du helburu, une zehatz batean aplikatzeko baliagarria izan behar du. Diziplinartekotasuna eman behar da, hau da, ezin da arlo bakoitza bere aldetik isolatua joan, alderantziz baizik, bizitzan gertatzen den gisan, modu integralean jorratu behar da.

Konpetentzien bidez bateratze lana planteatu genuen; beti ere, aukeratutako proiektu zehatz baten gainean. Horrela, hainbat arlotako irakaslek adostu behar zuten proiektua garatzeko elkarlana nola egin. Esan dezakegu Nafarro-



ako ikastola guztietan baditugula proiektuak bateratze lanaren bidez kompetentziak lantzen ari direnak.

### Bateratze lanerako baldintzak

Bateratze Lanek bete behar dituzten baldintzak hauek lirarteke:

- Diziplinarteko lana izan behar du. Berdin da HH, LH edo BHko proiektua izan.

- Helburu soziala izan behar du. Ezin da ikasketa akademikora mugatu. Adibidez, errobeta egiten bada, horrek, funtzio sozial bat bete beharko du.

- Errepika daitekeen proiektua izan behar du. Hau da, ez da behin soilik egin eta bertan uztekoa. Alderantziz baizik, errotu daitekeen proiektua izatea komeni da, urtero hobetzen joan badaiteke ere.

- Ikastetxearen inplikazioa eta konpromisoa egon behar du. Zuzendaritzak proiektuarekin bat egin behar du, bere jarraipena eta ebaluazioa izan ditzan. Ikasleek eta gurasoek garapeneren eta lorpenen berri izan behar dute.

- Proiektua denbora jakin batean garatu behar da. Astebete, 10 egun... modu intentsiboan, behar den denbora. Denek horren berri izan behar dute eta denen inplikazioa egon behar du, ordutegia, irteerak eta abar antolatzeko.

- Proiektua era intentsiboan garatzen ari den bitartean ez dira eduki berriak irakatsi behar. Ordura arte ikasitakoa aplikatu behar dute. Autonomia da landu nahi den helburu garrantzitsua. Horretarako, lana egiten utzi egin behar zaie ikasleei, dituzten ikasketak eta bitartekoak aplikatzeko aukera eskaini.

- Lantzen hasi aurretik, proiektuarekin zer lortu nahi den, garatu nahi diren kompetentziak eta abar agertu behar dira, norberak autoebaluatzeko irizpideak izan ditzan. Azken finean, proiektu



guztiekin badute produkzio zehatza, eta lortu nahi den guztia argi egon behar du hasieratik, ebaluazioa edota autoebaluazioa egin dezaten. LHko 5. mailatik aurrera webquestaren bidez modu erraza aurkitu genuen proiektua garatzeko behar duten guztia agertzeko. Txikiagoekin, panelak jartzen ditugu paretetan zeregin ikus dezaten, nondik abiatzen garen, zer bide egin behar den eta non amaitu behar den.

- Landu nahi den kompetentzia bakoitzean zer jarrera joratu nahi den argi uzten da. Horretarako, erabili beharreko teknologiarik egokiena baliatu behar dute: ahotsa, idatzia, marrazkia, taula, grafikoa, Internet... Teknologia era zabalean ulertuta.

### LONGAR proiektua

Momentu honetan Vianako (Nafarroa) Erentzun ikastolan Haur eta Lehen Hezkuntzak maila bakoitzeko bateratze lan bat ari dira diseinatzen. Irakasle guztiak inplikaturik daude zeregin honetan. Lan hauen adibidea, aurreko urtean, esperimentazio fase batean,

LHko 5. eta 6. mailako ikasleekin egindakoa izan daiteke: **lehen adinetik hirugarren adinera.**

Gure ikasleek badute ohitura bideo eta dramatizazioak egiteko, eta primeran aritzen dira bi arlo hauetan. Baina, gure erronka emanaldiaren prestaketa prozesua arduraz egitea zen. Askotan, gauzak egin egiten dituzte, irakaslea atzetik dabilelako bultzaketa. Hasieratik arduratsua izatea eskatu zitzaienten, baita hori lortzeko tresnak ere. Haien izango ziren egindako lanaren erantzule, onerako ala txarrerako. Azken finean, ikasleen autonomia eta inizatiba sustatzea dira prozesuaren funtsezko helburuak.

### Proiektuaren garapena

Abiatzeko, Zahar Etxeko arduradunei gutun bat idatzi behar izan zitzaienten gure emanaldiaren asmoa agertzeko. Gutuna nolakoa izan behar zuen aztertzen.

Gero, hirugarren adina aztertu genuen. Horrekin, ezusteko dezente hartu genituen. Adibidez, galdetegi bat pa-

satu zitzaien ea zein ziren beraien arazoak galdetzen, eta ez zutela arazorik erantzutean harrituta geratu ginen. Hala, beraien errealitatea gertuago ezagutu eta hainbat aurreiritzi baztertu dira, gertutasuna eta errespetuzko beste egoera sortuz.

Emanaldia prestatu behar zuten, gidoia antolatu behar zuten. Interneta erabiliz beraien arteko elkarlanean osatu behar izan zuten. Horrela, 15-20 ikaslek dokumentu beraren gainean aritu behar zuten lanean, bakoitzak bere atalaren ardura bazuen ere, denen artean osatu zuten guztia.

Prestatzeko prozesuan, kalkulu batzuk egin behar izan zirenez, matematikako hainbat ariketa txertatu genituen. Horrez gain, plastika, testuak, antzerkia, musika, kantak eta abar.

Hizkuntzak landu genituen. Gure lana euskaraz egiten bagenuen ere, emanaldia Vianako Zahar Etxean zenez, gaztelaniaz egin behar genuen. Horrela, bi hizkuntzak landu genituen.

Lehen esan bezala, lanak gauzatzeke, makuluak edo laguntzak eskaini zitzazkien. Adibidez, gutuna idazteko, gutun formal batek bete behar dituen arauak edo irizpideak idatzita dituzte, beraiek, edozein unean kontsultatu nahi badituzte. Horrekin batera, gutuna egin ondoren, autoebaluazioa egiteko galdeketa dute. Behin hori eginda, dena gordetzen dute.

Gero, egindako gutunen artean bat aukeratu genuen zozketa eginez. Eta gutun hura, denon artean ikusi genuen ea egokia zen ala zerbait egokitu behar genuen.

Galdetegia prestatu zen Zahar Etxeko pasatzeko. Datu haiekin, taulak prestatu genituen.

Emanaldirako hainbat saio prestatu behar izan zituzten. Bakoitzerako gidoia prestatu, zituzten beharrak aztertu: azpiegitura, materiala, musika, dekoratuak, aurkezpenak, entseguak eta abar; eta hura guztia antolatu behar zuten.

Edozein ikasleren azken ebaluazioa egiteko, ikasle bakoitzak egin dituen lanak eta autoebaluazioak bakoit-

tzak digitalizatuta gorde zituenez, erraza egiten zaio irakasleari jarraipena edo edozein kontsulta egitea.

Emanaldi osoaren balorazioa egiteko, egokia ikusi zen iaz, kanpoko batek egitea, gurasoren batek edo. Horren beharra ikusi genuenez, aurtan, horrela egitea pentsatu dugu.

### Balorazio orokorra

Hirugarren eta lehen adinekoen artean oso giro ona eta errespetuzko harreman aberatsak sortu direla esan beharra dago. Esperientziaren balorazioa positiboa izan denez eta kompetentziak lantzeko proiektu iraunkorrak, hau da, "gurekin geratuko direnak" behar ditugunez, urtero errepikatuko da goiko zikloko ikasleekin.

Irakasleen ikuspegia da azaleratu nahiko nukeena. Lehen unean halako proiektu integratuak izugarri pisuzkoak egiten ahal zaizkigu, izan ere, bai curriculum, bai jarduerak, kokapena, protokoloak, gidak eta abar: dena sortu behar dugulako. Baina pixkanaka-pixkanaka erakartzen zaitu, izan ere trebetasun profesional handiak jarri behar ditugu martxan eta errutinaren kontrako antidotoa ere izan daiteke. Bestalde,



aitortu beharra dago gure kasuan aldamenen kompetentzi arloan aditu bat edukitzea hagitz babes ona dela eta izugarriko ziurtasuna eta lasaitasuna ematen dizula.

Informazio zehatzagoa nahi duenak proiektu zehatz honen inguruan:

<https://sites.google.com/site/eren-tzun1adinetik3adinera2/>

Webquest moduko horren bitartez, bai ikasle bai irakasleentzako beharrezkoa den material guztia daukazue interes duzuenak. Bertan jardueraz jarduera ikasleek jarraitu beharreko pausak eta prozedurak, erabilitako protokoloak, kalitatea neurtzeko gidak zein pausak ebaluatzeke galdesortak aurki daitezke. Bestalde, irakasleek proiektu horren inguruko kompetentziak, denbora, tresnak eta ebaluatzeke irizpideak aurkituko dituzte. ●

## Sortzen Ikasbatuaz Hezkuntzari erasoaldiaren irakurketa eta erantzuna

**Azken urtean EAEko eta Nafarroako Hezkuntza sailek abian jarri nahi zituzten hainbat proiektu ezagutu ditugu: Curriculum dekretu berria, Indarkeriari legitimazioa kentzea eta bizikidetza demokratikorako plana, marko hirueleduna, irakas-kuntzari ezarritako murrizketak (RTPak), ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua... Asmo hauek guztiak hezkuntza komunitatearekin landu gabe onartu zituzten eta hezkuntzako eragile zein sindikatuen gehiengoaren ezetza jaso zuten.**

Hezkuntza komunitatearen iritzia entzuteari eta kontutan hartzeari muzin egiten diote. Dena den, azken egunotan ezagutu dugu berriro ere Nafarroako eta EAEko Hezkuntza sailek ez dutela atzera egiteko asmorik, kontrara, lege edo dekretu hauek guztiak aplikatzen hasteko urrats berriak ematen ari dira.

Sortzen Ikasbatuaz ustez, alarma gorri guztiak piztuta daude. Elkarrekin erantzun bateratu bat pentsatu eta aurrrera eraman beharra dago. Kalitatezko eskola publiko euskalduna eraikitzen jarraitu nahi dugulako. Horretaz ohar-



Sortzen Ikasbatuaz elkarteak egindako aurkezpena.

tuta, herrialde ezberdinetan sare publiko osatzen dugun ikasle, irakasle eta gurasoekin asanblada zabalak burutu ditugu abenduan zehar denon iritzia bildu eta erantzun bateratu bat adosteko. Gaurkoan, herrialde ezberdinetan egindako asanbladetan jasotako iritzi eta adostutako erabakiak aurkeztuko ditugu. Gaurtik hasita erantzun dinamika batean sartuko gara eta Euskal Herriko ikastetxeetara eramango dugu ekimen hauekin bat egin eta denok batera erantzun irmoa emateko helburuarekin:

### **Indarkeriari legitimazioa kentzea eta bizikidetza demokratikorako plana**

#### **IRAKURKETA**

- Herriaren errealitatea eskolan isla-

tu behar da. Gu, dauden gatazka ezberdinek hezkuntza eta eskola eremuan ere lekua izan behar dutelako iritzikoak gara.

- Baina, bizi dugun gatazka gordinak alde bakarrean soilik eragiten al ditu biktimak? Biktimak mota askotarikoak dira: gerran fusilatu, desagerrarazi edo/eta kartzeleratu zituztenak, kartzela-erbestean daudenak, tratu txarrak jasandako eta eraildako emakumeak, baztertuta bizi direnak, hile bukaerara heldu ezinean dabilzanak, bizitza proiektu bat eraiki ezin duten gazteak...

- Eta errealitate hori sufritu izan dutenen eta gaur egun ere pairatzen ari direnen seme-alabak ditugu gure ikasgeletan. Ezin dakiok inori bere sufrimendua edo biktima sentimendua ukatu.

Giza eskubide indibidual eta kolektiboaren gaineko heziketa integralarekiko konpromisoak bultzatu beharrean, diskurtso ofizial bakarra erakutsi eta ezarri nahi du, biktima batzuk soilik errekonozituz, eta besteak ezkutatu eta mespretxatuz. Biktimen errealitate gogorra gatazka konpondu eta haurrak bakean hezteko baino helburu politikoekin egiten ari dira. Honek, jendartearen kohesioa lortu ordez, zatikatu eta gorrotoa sortzea ekar dezake. Ikastetxeetan, familien artean, hezkuntza komunitatean kohesioa landu beharrean, tentsionamendu iturri izango da.

#### ERANTZUNA

Honen aurrean, adostutako erabakia honako hau da:

- Ikastetxe publiko batek, dokumentu bat osatu du, ikastetxe organo ezberdinetan onartu eta Hezkuntza Sailari bidaltzeko. Asanbladetan ondo ikusia izan da eta elkarteak testu horrekin bat egin eta hurrengo egunetan, ikastetxe guztietara zein hezkuntza komunitateari zabaltzea adostu du hauek ere erantzun bera bideratu dezaten.

- "Indarkeriari Legitimazioa Kenteza eta Bizikidetzatza Demokratikorako (2010-2011) planean" parte ez hartzea proposatzen dugu eta hala jakinarazi Hezkuntza Sailari.

- Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza sailak honelako erabakiak hartu aurretik Hezkuntza komunitatearekin, eragileekin, sindikatuarekin eta partidu politikoekin kontatu dezala eskatzen diogu. Tamaina honetako erabakiek babes sozial handiagoa izan behar dute eta.

### Marko hirueleduna eta TIL

#### IRAKURKETA

Ereduak gaingitu eta euskara irakats hizkuntza nagusia bilakatu beharrean, hizkuntza gutxitua eta gaztelera parekatzen ditu, ingelesari ere ordu kopuru bera eskaintzen zaiolarik (% 20, % 20 eta % 20). Horrela ezin da euskara berreskuratu. Guk eta hezkuntzako eragile zein sindikatuen gehiengoak dekretu horren aurka egiten du. Hezkuntzako gehiengoaren arabera, D

### Sortzen Ikasbatuazenez, alarma gorri guztiak piztuta daude. Elkarrekin erantzun bateratu bat pentsatu eta aurrera eramanez beharra dago. Kalitatezko eskola publiko euskalduna eraikitzen jarraitu nahi duelako.

ereduan oinarritutako hizkuntza eredu bakar, euskaldun eta eleanitza beharrezkoa da, ikasle euskaldun eleanitzak hezteko.

#### ERANTZUNA

Hau ikusita, ekimen hauek eraman-gotitu dugu aurrera:

- Sortzen Ikasbatuazenez ikastetxeek ez dute Trilinguismo eta TIL proiektuetan parte hartuko. Gure erabakia, Hego Euskal Herriko ikastetxe publiko guztietara hedatzen saiatuko gara, euskararen aurkako proiektu hauetan ez dezaten parte hartu. Eta Nafarroako eta EAEko hezkuntza sailei euskararen kalterako diren hizkuntza eredu hauek bertan behera utz ditzaten exijitzeko. Horretarako, eskola kontseiluetan onartzeko testu bat prestatu dugu.

- Informazioa hedatuko dugu. Hitzaldi bira egingo dugu Hego Euskal Herriko herri eta ikastetxeetatik.

### Ordezkapenak eta murrizketak

#### IRAKURKETA

- EAEko Hezkuntza sailak soilik gutxiengo sindikalaren babesarekin sinatutako akordioa martxan da. Hala, irakasle postuen murrizketak eta ikastetxeetara ordezko irakasleak ez bidaltzeak arazo larriak sortu ditu: sarri, Euskal Herriko eskola publikoetako haurrak irakaslerik gabe aurkitu dira; ordezkorik ezean, gainontzeko irakasleek edo zuzendaritza taldeek ordezkatzen dituzte irakasleak, lan baldintzak okertuz eta eskolaren kalitatea asko murriztuz.

#### ERANTZUNA

Euskal Herriko gehiengo sindikalak adostutako neurriekin bat egiten

dugu eta ekimen horiek bultzatuko ditugu era aktiboan. Hala, gaurtik aurrera Sortzen Ikasbatuazenez ikastetxeek: batetik, ordezkorik agertzen ez denean gurasoak informatuko dituzte; bestetik, Hezkuntza Sailera kexa gutunak bideratuko dira. Egoerak bere horretan jarraituz gero plantoak egingo ditugu.

### Curriculum dekretua

#### IRAKURKETA

- Euskal Herria ez dela existitzen dioen curriculum onartu zuten EAEko parlamentuan. Behin dekretua onartuta, berau praktikara eramateko urratsak ematen ari dira. Arazoa ez dago terminoan, subjektuan edo eremuan baizik. Hau da, geografian ofizialki egingo dira Euskal Herriko 7 herrialdeak ikasi, 3 baizik; historian, soilik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako historia ikasi ahal izango da. Horrela irakasgai guztietan.

#### ERANTZUNA

- Sortzen Ikasbatuazenez ikastetxeetan Euskal Herria irakasten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Euskal Curriculum. Hezkuntza sistemaren ardatza curriculum da. Zentzu honetan, Euskal Curriculumaren eraikuntza bururaino eramateko konpromisoa hartzen dugu.

### Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua

Nafarroan ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua onartu berri dute. Irakaslegoari autoritatea lege bidez emateak, antzinako irakasle autoritarioetara bueltatzearen arriskua dakar. Honek ez du ikastetxeetako giroa hobetzeko aferan inolako laguntzarik ekarriko. Autoritatea ez da lortzen dekretuen bidez, bai ordea eskola komunitate osoaren arteko eguneroko elkarlanarekin. Sortzen Ikasbatuaz Nafarroako hezkuntza komunitateko ordezkariekin bildu da eta dagoeneko lehen kexa zein mobilizazioak burutu ditugu. Afera honen erantzuna antolatzen jarraitzeko asmoa dugu eta dekretu honen egunerokotasunean ekarriko dituen istiluen aurrean erantzuteko borondatea dugu. ●



Ikastolen Elkartea

**IKASTOLAK!**

## Zer esango zenuke irakasleen prestakuntzaren gainean



Irakasleen hasierako prestakuntzan unibertsitateek eta ikastetxeek urte askoan izan duten arazo nagusietako bat aurkeztuko dizuet: campusean eta eskolan eskaintzen diren osagaien arteko lotura falta. Irakasleen prestakuntzan gune hibridoak sortzeko lanak paradigma aldaketa bat adierazten du, irakasleen prestakuntza programen epistemologian; izan ere, ezaguera akademiko eta praktikoa eta komunitateak duen ezaguerak bat egiten dute horren hierarkikoak ez diren irakasleen ikaskuntza modu berrietan. Eskolekin eta komunitateekin lan egiteko bide demokratiko eta inklusiboago horretara jotzea ezinbestekoa dela diot, unibertsitateek beren zeregina bete dezaten irakasleen prestakuntzan.

Maisu-maistren hezitzaile lanean egin dudana karreraren zatirik handie-



**Ken ZEICHNER**

WASHINGTONGO UNIBERTSITATEKO  
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO ZUZENDARIA

nean, etorkizuneko maisu-maistrei eskoletan praktika esperientziak antolatzeko eta horiei eta komunitateei laguntza emateko ardura izan dut; eta, irakasleen hasierako prestakuntzako

hezkuntza programetan, irakasle eskolako ikasleen ikaskuntza prozesua ikertu dut. Urte horietan, hauxe izan da niretzat gauzarik zailenetakoa: nire departamentuan energia intelektuala mobilizatzea, irakasle eskolako gure ikasleek beren eskoletan eta praktikaldiko tokietan egiten dutenaren eta irakasle eskolako gainerako hezkuntza programen artean loturak sendotzea.

### Irakasleen prestakuntzan, campusaren eta praktikaren artean egin izan den banaketa tradizionala

Estatu Batuetan, irakasleen hasierako prestakuntzan nagusitu izan den eredu historikoan, “teoriaren aplikazioan”, ustez, etorkizuneko maisu-maistrek teoriak ikasten dituzte unibertsitatean, eta, horren ondoren, eskolara



joaten dira campusean ikasi dutena praktikan jartzera edo aplikatzera.

Maisu-maistrek praktikatik eta praktikan ikasi behar dute, eta ez, horrenbeste, praktiketarako, horixe diero eta jende gehiagok (BALL eta COHEN, 1999; HAMERNESS et. al., 2005); hala ere, askoz handiagoak dira desadostasunak, maisu-maistrek praktikan eta praktikatik ikas dezaten eta ikaskuntza hori hezigarria eta iraunkorra izan dadin zer baldintza behar diren aztertzean.

Unibertsitate tradizionaletan, bada irakasleen prestakuntza programetan beti izan den arazo bat: unibertsitate campusean eskaintzen den irakasleen prestakuntzaren, irakasgaien eta praktikako esperientzien arteko lotura falta. Orain, irakasleen prestakuntza programa askok praktikei begira askotariko esperientziak txertatzen dituzte programan zehar, eta, askotan, esperientzia praktikokoak eskolaren eta unibertsitatearen arteko halako elkargune batean kokatzen dituzte (adibidez, lanbide garapenerako eskolak, eskola sozialak); hala ere, lotura falta handia dago askotan, campuseko irakasgaietan ikasleei irakasten zaienaren eta ikasle horiek kokatuko diren eskoletako praktikek aldarrikatzen dituzten ikaskuntza aukeren artean, baita lanbide garapenerako eskola edo eskola sozial batzuen barnean ere.

Ikerketak argi eta garbi utzi du praktiken esperientziak garrantzi handiko aukerak direla etorkizuneko maisu-maistren ikaskuntzarako, aurrez ikasitako gauzak aplikatzen badakitela erakusteko denboraldi huts bat baino askoz gehiago direla.

Zenbait hezitzailek diote praktiketako esperientziak izan behar luketela irakasle eskoletako ikasleen foku nagusia, eta esperientzia horietatik eratorri behar lukeela programaren gainerako zatiak. Laborategi eskolak sortzea ere hartu dute barnean estrategia horiek.

Artikulu honetan aztertuko den lan-kidetza mota maisu-maistren prestatzaileentzat zeregina berriak sortzean oi-

narrituko da batez ere, bai eta irakasleen prestakuntza prozesuan ezaguera akademiko, praktikoa eta komunitatearena bateratzeko bideetan ere; eta ez, horrenbeste, irakasleen prestakuntzarako erakundearen egiturazko aldaketan.

### **Ezaguera praktikoa eta akademiko uztartuz, gune hibrido berriak sortzea**

Artikulu honetan hirugarren espazioa edo gunea erabiltzen dudanean, irakasleen prestakuntza programetan espazio edo gune hibridoak sortzeaz arituko naiz, gune horietan unibertsitateko irakasleak, eskoletako hezitzaileak eta etorkizuneko maisu-maistren ikaskuntza hobetzeko forma berrien inguruko ezagutza praktikoa eta akademiko biltzeaz. Campusaren eta eskolaren arteko lotura falta ohikoa izanda, eta ezaguera akademiko baliotsi da, irakasleen prestakuntzako ikastetxe tradizionaletako eta unibertsitateko ereduak irakasleen prestakuntzarako ezaguera iturri autoritario modura (SMAGORINSKY, COOK eta JOHNSON, 2003); hirugarren espazioek, ordea, ezaguera praktikoa eta akademiko, biak, barneratzeko modua errazten dute, horren hierarkikoak ez diren formetan, horrela, etorkizuneko mai-

**Maisu-maistrek praktikatik eta praktikan ikasi behar dute, eta ez, horrenbeste, praktiketarako. Hala ere, askoz handiagoak dira desadostasunak, maisu-maistrek praktikan eta praktikatik ikas dezaten eta ikaskuntza hori hezigarria eta iraunkorra izan dadin zer baldintza behar diren aztertzean.**



su-maistrentzat ikasteko aukera berriak sortu ahal izateko.

### **Mugak gainditzea eta hirugarren espazioak sortzea irakasleen prestakuntzan**

Irakasle eskolako ikasleen ikaskuntzari babesa emateko modu sinergikoago baten bidez ezaguera akademiko eta praktikoa hurbiltzeko ahale-



**Unibertsitateek aldatzeko eta, maisu-maistren karreren bidez, eskolekin eta komunitateekin gertuagotik eta errespetu handiagoz lan egiteko erakutsi izan duten interes txikiak**



**desilusio handia eragin du. Irakasleen prestakuntzari buruzko episte-**

**mologia berri hori mundu osoko joerara hurbiltzeak konplexutasun handia sor badezake ere, hori garaiz egin behar da.**

ginean, azken urteotan, unibertsitateetako irakasleen prestakuntza programa batzuetan mugak gainditzerakoan ikusi izan diren zenbait modu deskribatu ditut. Irakasleen prestakuntzan sortzen ari diren espazio hibrido motak argitzea da nire helburua, eta, horretarako, niretzat ezagunenak direnetatik zenbait adibide aipatu ditut.

### **1. Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak eta horien ezaguera campuseko irakasgaietara eta praktiken esperientzietara hurbiltzea**

Urte askoan, nahiko ohikoa izan da unibertsitateetan Lehen Hezkuntzako hezitzaileak irakasle laguntzaile modura kontratatzea, irakasleen prestakuntza programetan nahitaezkoak diren irakasgaien atal batzuk edo zati batzuk irakasteko.

### **2. Maisu-maistren praktiken errepresentazioak txertatzea campuseko irakasgaietan**

Campusean, irakasleen prestakuntza jardueretara zuzenean maisu-maistrak ekartzearen aurrean, alternatiba bat hauxe da: irakasgai horien barnean maisu-maistra horien praktiken erre-presentazioak txertatzeko aukerak sortzea.

Lehen Hezkuntzako maisu-maistren praktiken adibideak ekarri behar-rean, bada beste aukera bat irakasle eskolako unibertsitate irakasleentzat: Lehen Hezkuntzan eta Bigarrenean, beraiiek irakaskuntzan izandako esperientzietatik abiatuta, adibide praktikokoak sortzea, eta unibertsitateko irakasgaietan erabiltzea gero adibide horiek.

### **3. Bitartekaritza bidez irakastea eta praktikaren esperientziak**

Urte askoan, Lehen Hezkuntzako eta Bigarreneko didaktikako irakasgai guztiak edo horien zati bat eskoletan gauzatu izan dituzte unibertsitateko irakasleek. Irakasgai bat eskola batean emateak ez du esan nahi, berez, irakasgai horrek unibertsitate campusean eskaini den bertsioaren desberdina izan behar duenik. Hala ere, irakasle batzuk eskolan zuten kokapenez baliatu izan dira, eta modu estrategikoan konektatu dute eskolako metodoei buruzko beren irakasgaia eskola horretako maisu-maistren praktikarekin eta trebetasunarekin.

### **Irakasleen prestakuntzan komunitateetatik ezaguera txertatzea**

Campusean eta eskoletan irakasleen prestakuntza ematen den gunetik eskola horiek kokatuta dauden komunitate zabalagoetara hedatzea defendatu izan dute urte askoan etorkizuneko maisu-maistren hezitzaileek.

Horrelako irakasleek gogoz esku har dezaten, irakasle seniorrek eta administratzaileek lidergoa hartu behar dute, eta baldintzak sortu behar dituzte, irakasleek beren esku-hartzeagatik eta irakasleen prestakuntza programa eredu-garriak sortu eta bultzatzeagatik sarriak jaso ditzaten.

Garrantzi handia du, halaber, ira-

kasleen prestakuntza programek beren baliabideak jasotzeak erakundeentzako, kalitate handiko irakasleen prestakuntza programak, ondo planifikatutako praktikak barnean hartzen dituztenak, emateko. Artikulu honetan deskribatu den lan mota ezin da eskala handian garatu, unibertsitate campusean irakasleen prestakuntzak askotan izan duen finantzaketa txikiarekin.

Irakasleen prestakuntzarekin lan-kidetzan, eskola, unibertsitate eta komunitatean kalitate handiko praktikak garatzeko finantzaketa lehiakorra emateak --gogoan hartu artikulu honetan aztertutako adibideak-- gaur egun diruak duen erabilera hobetzea ekarriko luke.

Askotariko erakunde eta programetan praktika horien garapena eta etengabeko hobekuntza sustatzeko beste modu bat, mugak zabaltzeko eta praktika hibridoak sortzeko, horrelako jarduera moten sorreran oinarritzen diren erakundeak sustatzea da. John Goodlad-ek eta honen kolaboratzaileek 1986an sortutako National Network for Educational Renewal erakundea dugu horren adibide bat.

Unibertsitateek aldatzeko eta, maisu-maistren karreren bidez, eskolekin eta komunitateekin gertuagotik eta errespetu handiagoz lan egiteko erakutsi izan duten interes txikiak desilusio handia eragin du (HARTOCOLLIS, 2003). Irakasleen prestakuntzari buruzko epistemologia berri hori mundu osoko joerara hurbiltzeak konplexutasun handia sor badezake ere, hori garaiz egiteko gai ez bagara, irakasleen prestakuntzan oinarritutako unibertsitateak ordezkatuak izan daitezke. Ibilbide azkarra eskaintzen duten programa ugari agertzea edota unibertsitateko irakasleei oso roltxikia esleitzen dieten beste hornitzaile batzuk sortzea (HOLLAND, 2004) ohiko bihurtuko da. Horrek bie, maisu-maistrei eta ikasleei, egingo die kalte, ezaguera modu desberdinen arteko elkarreraginaren bidez sortzen diren ikaskuntza aukeren hedapena egiteke geratuko baita. ●

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

otsaila

berriak

# Euskal Herri euskaldun eta burujabe baten alde, kalera irtengo da EHE hilaren 12an



Hizkuntzaren inguruko gatazka Euskal Herriak bizi duen gatazkaren erdigunean kokatu behar dela dio Euskal Herriaren Euskarazek, "herri euskaldunaren askatzeari lehentasuna" eman behar zaiola dio. Aldarrikapen hori kalera aterako du EHEk otsailaren 12an, Donostian egingo duen manifestazioarekin. *Sasi guztien gaineretik, euskaldun eta burujabe* izango da manifestazio nazionalaren leloa, eta 17:00etan atera-

ko da Donostiako Bulebarretik.

Manifestaziora mugatzen ez den dinamika sortu nahi du EHEk euskararen inguruko gatazka euskal gatazkaren erdian kokatzeko ahaleginean, eta ideia horrekin bat datozen eragile, norbanako zein erakundeei zuzenduriko manifestu bat prestatu dute atxikimendua biltzeko.

EHEren ustez, Euskal Herriak bizi duen "arazo politiko nagusia" euskarak

bizi duen egoera da, eta ondorioz, arazo politikoak denez, erantzun politikoak behar duela uste du erakundeak. "Asimilazio prozesuaren ondorioz, nazio hizkuntza menpeko bilakatu da, eta euskaldunak bigarren mailako herritarak gara gure herrian. EHEk zabaldu duen manifestuan, asimilazio prozesu horren aurka "praktika burujabearen aldeko hautua" indartzeko eskatzen du. "Zazpi euskaldun + erdaldun bat = zortzi erdaldun" ekuazioa amaitu, eta euskaraz bizi den herria nabarmentzea ekarriko duen praktika indartu behar dugu".

Hilaren 12a, manifestazio eta aldarrikapen eguna izateaz gain, omenaldi eguna izango da, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i omenduko baitu EHEk, "herri euskaldunaren aldeko mugimenduaren erreferente bat" izan delako. Hain zuzen ere, Txillardegi Oizan zen EHEren sortzaileetako bat 70eko hamarkada bukaeran.

**EHEk aurkeztutako manifestuari atxikimendua emateko:**

[www.euskalherrianeuskaraz.org](http://www.euskalherrianeuskaraz.org)

## ERRAUTSAK



Igor Elortza eta Unai Iturriagarekin idatzia

**XIMUN FUCHS ANDER LIPUS  
MIREN GAZTANAGAN MAREN FUCHS  
AINARA GURRUTXAGAN URKO REDONDO**

### OTSAILA

- 3 Izpura (BaxeNafarroa)
- 4 Garruze (BaxeNafarroa)
- 5 Orereta (Errenteria)
- 6 Orereta (Errenteria)
- 20 Sara
- 25 Beasain
- 26 Berriz

### MARTXOA

- 20 Ondarru
- 25 Hazparne

### APIRILA

- 1 Zarautz
- 2 Igorre
- 14 Eibar
- 30 Aulesti



www.errautsak.com (+34) 615 77 95 info@artedrama.com

# IV. Euskal soziolinguistika jardunaldiak

Ikerlarien, unibertsitateko irakasleen, eta ikas-tetxeetan, lan munduan eta administrazioan euskararen normalizazioan ari direnen topagune izateko helburuarekin, hitzaldi, mahai-inguru, lan-saio eta elkarrizketak egingo dituzte Donostiako Miramon Zientziaren Kutxagunean IV. Euskal Soziolinguistika Jardunaldien barruan, hilaren 18an.

Soziolinguistika i(r)a)kastearen plazeraz mntzatuko da Juan Carlos Etxegoien *Xamar* irakaslea sarrera-ekitaldiaren ondoren. Jarraian, III.

Euskal Soziolinguistika sarien banaketa ekitaldia egingo dute, eta gero, Mikel Zalbide euskaltzainak *Teoriari tiraka. Diglosiaren purgatorioaz* hitzaldia eskainiko du. Arratsaldean Jordi Sole i Camardons soziolinguista mintzatuko da lehenik, eta Emuneko Txerra Rodriguez ondoren. Izena emateko azken eguna hilaren 15a izango da, eta [www.soziolinguistika.org](http://www.soziolinguistika.org) webgunean egin liteke.



## Ikasten irakasteko ikastaroa, ikasten irakasteko ikastaroa

Carles Monereo Bartzelonako Autonomia Unibertsitateko Psikologia Doktoreak metaezagutzari buruzko mintegia emango du Bilboko Plaza Barriko laugarren zenbakian, Nuevas Claves Educativas Fundazioak antolatuturik. Ikasten ikasiz gero, bizitza guztian per-

tsionak bere burua formatzen jarraitzen duela defendatzen du Monereok. Lau atal izango ditu ikastaroak: batetik, ikasten irakastea; bigarrenik, estrategia bat aurkezteko metodoak; zuzenduriko praktikarako metodoak; eta azkenik, metaezagutzaren analisisiez eta

praktika autonomorako metodoez ariko da doktorea. Monereo metaezagutzari buruzko hainbat libururen egilea da, eta ikertzaile eta irakaslea.

Mintegia otsailaren 25ean izango da, eta izena emateko [www.fundacionmnce.org](http://www.fundacionmnce.org) webgunean egin liteke.

## Bizitoki egitasmoa aurkeztuko dute, bizi egitasmoaren baitako hezkuntza proiektua

Irailean abian jarri nahi duten Bizitoki haurrentzako hezkuntza egitasmoa aurkezteko bilkurak egingo dituzte hila-bete honetan Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan. Haurren eskolatzeko Bizitoki bat sortu nahi dute, Seaskan federatua. Euskara plazeraz ikasi eta mintzatzea, oinarritzko beharrak bertan asetzea, partekatzearen ideologia zabaltzea eta planetarekin orekan

bizitza ditu xede egitasmoak. Pertsonen arteko harremanak arretaz zaintzea eta hitzaren, sorkuntza artistikoen eta festaren bidez sentimenduen adierazpenari garrantzia eman nahi dio Bizitokik. Aurkezpen bilkura guztiak iluntzeko zortzietan hasiko dira, eta [www.bizitoki.org](http://www.bizitoki.org)-en dago informazio gehiago. Otsailean izango dira aurkezpen guztiak.

**11:** Ezpeletako Doxpi ostatuan.  
**17:** Baionan, Eusko Ikaskuntzan.  
**18:** Hazparneko Xuriatean.  
**19:** Donibane Lohizuneko Begiraleak bulegoan.  
**24:** Donibane Garaziko Kalakan.  
**25:** Mauleko Zinka ostatuan.  
**26:** Donapaleuko Zerbitzu Publikoen etxean.



**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...**

**>>> "Irrien Lagunak Kluba" sortu berri da. Zer iritzi duzu Klubaren gainean? Zer ekarpen egin dezake? Zer arrisku ikusten dituzu? Zer proposamen berri egin liteke?**

**> Eredu hezitzailea**

Iloba eta biok egon gara gaur ikuskizunean. Hura bai izan dela ikuskizuna! Norbaitek idatzi du pertsonaia berriek balore eredugarriak eta ikuspegi hezitzailea hedatzen dutela. Hori, gaur, nik ere baieztatu dezaket. Gainera, ikuskizunean agertzen den koherentzia, kalitatea eta ukitu humanoa heziketarako oso onak direla esango nuke. Taldearen ibilbidean gorako saltotxo berri bat dela iruditzen zait, atak eta leihoak irekitzen ditu eta bide berriak jorratzen ditu, tentuz eta zentzuz. Mila esker zuen ekarpenarengatik! *Maite Gerra*

**> Elkartasunari elkartasuna**

Pertsonaia berri guztiak ongi aukeratu badaude ere, nik ELKARTASUNA adierazten duten Ane Pirata eta Patakon azpimarratuko nituzke. Heziketaren ikuspegitik arlo asko lantzen badira, oro har, badago bat gutxi hartzen dena aintzat: ELKARTASUNA.

Askok hitz egiten da konpetentzietaz, elkarbizitzaz edota bizikidetzaz, autonomiaz eta abar, baina mundu hobea egin nahi badugu, ezinbestekoa da behar handiena dutenekiko elkartasunaz aritzea. Hori, komunikabideek eta hedatzen dituzten baloreek kontuan hartzen ez dutenez, heziketan, lehen lerroan egon beharreko balorea dugu. Horregatik, ongi etorri Ane Pirata eta Patakon hezkuntza mundura. *Joxemiel*

**> Izen hobeak badaude**

Klubaren ideari ongi baderitzot ere, pertsonaia berrien izenak jartzeko orduan ez dela asmatu iruditzen zait. Zehazki, Largabista eta Marikalanbre kasuak dira atsegin ez zaizkidanak. Lagunartean aipatu izan dudanean, izen "graziosoak" direla esaten didate... Ez ote da, horretan ere, gure menpekotasuna oso barneratua dugula? Hausnartzekoa dela iruditzen zait. *Iker G.*

**> Pertsonaia berriak**

Niri asko gustatu zait pertsonaia berriak sortzea eta pertsonaia bakoitzak identitate propioa izatea. Horrela, haur bakoitzak pertsonaia bat ala bestea gertukoagoa sentituko du. Gustoen eta jakin-minaren arabera identifikazioa ona dela iruditzen zait. Zorte ona izan dezala proiektuak, hori besterik ez dut espero. *Mikel Legarreta*

**> Ez edozein pertsonaia**

Oso ongi aukeratu dituzte pertsonaiak. Pentsatzen jarrita, zein dira bizitzan beharko genituzkeen oinarriak? Eta zer egin liteke bizi kalitatea hobetzeko? Osasuna, heziketa, ekologia-natura, kulturaren transmisioa, bolondres izatea-elkartasuna, maitasuna... Zer ego-kiago hezitzaile ikuspegitik begiratuta? Hoiek guztiak, edonorentzat eta edonon baliagarriak dira gizartea hobetzea helburu duen edonorentzat. Zorionak eta aurrera neska-mutilak, eta, hezitzaileok! *Aurora B.*

**Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> PISA neurketako emaitzak hiru urtetik behin egiten dira publiko. Zer iritzi duzu neurketa mota horren gainean?**

**Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa HIK HASIRI buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu HIK HASIREN berri!


# argitalpenak



## Aitona-amonekin kantari

Imanol Urbietta  
ELKAR

Disko honek aitona-amonek gaur egun bilobak zaintzen egiten duten lana eskertzea du helburu, aitona-amonekin bizi izandako uneak gogoratzu osatu baitu Imanol Urbietak disko hau. Izan ere, gaur egun familia eta lana ongi uztartzea zaila gertatzen da, eta gero eta gehiago dira euren biloben zaintzaz arduratzen diren aitona-amonak. •



## Eskolatik abiatuta euskararen erabilera areagotzeko zenbait programa

KONTSEILUA

Euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak hainbat programa aurkezten ditu liburu honetan. Ikasgelan, eskolan, herrian, udalerrian edota udalez gaindiko eremuetan eragin nahi du Kontseiluak, eta erabilera areagotzeko hainbat hausnarketa ere plazaratu ditu. •



## Tantak

EHU

Bigarren Hezkuntzako ikasleek irakurriaren ulermenean dituzten zailtasunen inguruan hausnartu du EHuko hezkuntza aldizkarian Gema Lasartek. Julia Ibarrek, aldiz, testuliburuetan ekologiaren inguruan zabaltzen diren ideiak jaso ditu. EAEko familia etorkinei buruzko erreportaje batekin eta ikus-entzunezko alfabetizazioari buruzko beste batekin osatzen da alea. •



## Goikoak eta behekoak

Paloma Valdivia  
KALANDRAKA

Mundua alderantziz delako ikuskeratik abiatzen da album hau, errealitateak dimensio paralelo batean dukeen halako islatik. Bizimodu antagonikoak daramatzatelako ideiatik abiatu beharrean, bizikide eta osagarriak diren mundu partekatuak direlako planteamendua aurkezten du Valdiviak. Euskarara Manu Lope Gasenik ekarri du. •



## Behinola

GALTZAGORRI

Euskal Herriko Haur eta Gazte Literatura Elkartearen Behinola aldizkariaren 22. zenbakiak ipuin kontalaritzari eskaini dizkio bere orrialdeak. Virginia Imaz, Pello Añorga, Maite Franco eta Jose Mari Carrererekin mintzatu da Galtzagorri elkarteak. Horrez gain, Antton Irustak ipuingintzaz hausnartu du, eta Koldo Amestoyk ipuin bat ongi kontatzeko dekalogoia prestatu du. •



## Autopsiarako frogak

Koldo Izagirre  
SUSA

“Euskararen erailketa programatua dago, kanpotik bezala barrenetik”, Koldo Izagirreren arabera, eta hori erakutsi du argitaratu berri duen saiakeran. Garai eta jatorri askotako adierazpen, testu, pasadizo eta dokumentuak aztertuz ematen du Izagirren euskararen egoerari buruzko bere iritzia, 11 aletan. •

# ... nora joango gara?

## Gure Sustraiak

### Aterpea eta baserri eskola

**Gure Sustraiak aterpea eta baserri eskola Olloko herrian dago (Nafarroa), izen bereko bailara zoragarrian, Ollaranen, naturarekin bat eginik; eta, mendi nahiz haraneko bide zein bidexketatik paisaia miresgarriaz gozatzeko aukera ematen digu. Herri txiki eta lasaia da, ibilgailuen zirkulaziorik gabea.**

#### Baliabide ugari

Baliabide ugari dituzte, ikasleekin hezkuntza jarduerak egiteko: aparteko ingurunea, aterpe eroso (56 laguntzako lekua, erabilera anitzetarako gela, berokuntza zentralizatu eta jangela), frontoia eta joko eremua, baratze ekologikoa, berotegiak eta baserri eskola (ukuilua, oilategia, usategiak, txerritegia..., jolasteko eremu berde zabalak, hainbat animalia motarekin).

#### Metodologia

Erabiltzen duten metodologia ireki, parte-hartzaile, esperientziadun eta kritikoak posible egiten du programen eduki kontzeptualetik (etxaldea, baratzea, basoa, energia) haratago joatea; Garapenerako Hezkuntzarekin eta Elkarbizitza Positiboarekin erlazionatutako kontzeptu eta edukiak eta prozesu metodologiko berriak lantzen dituzte, eta, horrela, ikasle taldeen esperientzia aberastu egiten da.



#### Erronka berriak

Gure Sustraiak baserri eskolako talde pedagogikoak argi ikusten du oraingo belaunaldiak, eta gerokoak, erronka nagusia klima aldaketari aurre egitea dutela, eta baita egun duguna baino etorkizun hobea bermatzea ere. Horrek gure bizitzeko moduetan aldaketak egitea eskatzen du, eta ahalmen sozial eta ekonomikoak Ingurumen Hezkuntzaren barnean biltzea, ez tresna horren bidez ingurunearen ezaguerara soil bat izateko, gure bizitzako arlo guztietan Garapen Iraunkorra lortzeko baizik. Ez ingurumenean bakarrik, baita gizartean, ekonomian, kulturen, eta abarretan ere.

#### Hausnarketa gunea

Globalizazioak elikatzen dituen beharrak eta arazoak –eta horrek sortzen

dituenak? mahai gainean jartzeko tresna bihurtzen dira (Iparraren eta Hegoaren arteko urradura, planetako ondaren banaketa, injustizia sozialak...). Milurteko Garapen Helburuak (MGKk) gidari hartuta eta baserri eskolako egonaldian hainbat jardura eginda, parte hartzen duen taldean sakon lantzen dira elkarbizitzarekin, garapenarekin, prozesu hazkundearekin eta abarrekin lotutako kontzeptu metodo-







logikoak (arauak, errespetua, komunikazioa, koordinazioa, gizarte rolak, gatazken konponbidea, larderia eta tratu txarrak...).

### Prozesu eragileak sustatzen

Informazioa bildu eta identifikazio lana egin eta gero, azken helburua prozesu eragileak irekitzea da, aldaketara bideratutako balioak eta jarrerak sortzea, ikaslea protagonista bihurtzea, haren alderdi tolerante eta solidarioena eta haren bitartekari izaera garatzea, neurri errealean bilaketa prozesua has dezan; neurri horiek indibidualak nahiz taldekakoak izango dira, eta bidezkoagoa eta jasangarriagoa izango den garapen eredu batera aldatzeko aukera emango dute, eta planetan bizi garenon arteko elkarbizitza positiboagoa erraztuko dute.

### Begirale espezializatuak

Aterpetxeak dituen begirale espezializatuak aukera ugari eskaintzen dituzte: egonaldiak, jarduera bereziak, eta abar.

Egonaldietan, neska-mutilek ingurumenarekin, baserriarekin eta baratze ekologikoarekin lotutako jarduerak eta ekintzak egiten dituzte, bai eta lantegiak eta beste hainbat jarduera ere. Hala, egunean 24 orduz ikasten dihardute: jolasak eginez, animaliekin ibiliz edota inguruarekin harreman zuzena izanez. Ingurumenari buruzko edukiak bereganatzearekin batera, bikain pasatzen dute, beren adineko neska-mutilekin bizikidetzat lantzen. ●

## GURE SUSTRAIAK BASERRI ESKOLA

31172 OLLO (Nafarroa)

Tel.: 948 328 164

Fax: 948 328 255

e-maila: guresustraiak@yahoo.es

Web gunea: www.guresustraiak.com



### INGURUMENeko PROGRAMAK:

#### Haritza programa

Olloko bailararen geologiaren (diapiroa) eta inguruaren azterketa, inguruko ekosistemen ikaskuntza, funtzionamendua eta horiek zaintzeak duen garrantzia; animalia eta landare espezieak identifikatzea eta sailkatzea; ingurumen arazoaren simulazioa, berrerabiltzeak eta birziklatzeak daukan garrantzia lantzea...

#### Baratze programa

Urte garaieran arabera baratzeke eginbeharrak garatzea, konpostaren erabilera, ilargi egutegiaren azalpena, inguruko nekazaritzaren ezaguera, gizakiok dauzkagun baliabideen onura, laborantza trinko eta iraunkorren alderaketa.

#### Baserri programa

Etxaldeko animalien ezagutza, zaintza eta mantentze lanak, gizakia-entzat onuragarriak diren elikagaien jatorria, galtzeko arriskuan dauden animaliei buruzko azalpena, eta gaur egungo abeltzaintza trinko eta estentsiboak ingurumenari dakarzkion arazoaren azalpena.

#### Energia programa

Eguneroko jardueretan energiaren beharra ikustea, energia berriztagarrien erabileraren beharra eta honek inguruan dituen onurak aintzat hartzea, energia lortzeko era askotarikoak ikustea, era bakoitzaren alde on eta txarrez jabetzea, energia aurreztu beharraz jabetzeko sentiberatasuna lantzen laguntzea.



# atzeko atetik



**Iñaki PERURENA**

HARRI-JASOTZAILEA

Eskola garaia nola bizitu nuen gogorarazten didaten bi anekdota dauzkat.

Bata, txiki-txikitakoa. Leitzan bazi-  
ren mojak eta nire jaiotetxetik mojetara  
20 metro zeuden. Gure amak baserriko  
lanetan aritu behar izaten zuen eta, or-  
duan, mojetara eramaten ninduen haur  
txiki-txikia nintzela, urte eta pikurekin.  
Mojak, madre Elbira deitzen genionak,  
hartzen ninduen. Gero, etxera erama-  
ten ninduen, amak utzitako kafea har-  
tzen zuen eta joan egiten zen.

Niretzat moja haiek gaur egungo  
haurtzaindegietako hezitzaileak beza-  
la ziren. Orduan ez zen haur eskolarik.  
Eta amak lanak egin behar zituenez eta  
non utzirik ez zeukanez, zerbitzu gisa

## Jakin-mina

mojek hartzen ninduten. Haiek esnea,  
agian, gure etxetik eramaten zuten eta  
gertutasuna zegoen bi etheen artean.

Bigarren anekdota edo oroitzapena  
12 urte inguru nituenekoa da. Herrian  
guraso batzuk bildu egin ziren seme-  
alabek Batxilergoa libretik ikas zezaten  
nahi zutelako. Horrela, eskolatik apar-  
te, mutil gazte batzuk kontratatu zituz-  
ten Batxilergoko eskolak emateko.  
Hala, Batxilergoa herrian egin eta, gero,  
Iruñeko institutuan egiten genituen az-  
terketak.

Ni ikasle txarra nintzen, ez nuen go-  
goko ikastea. Gainera, 12-13 urterekin,  
sasoiko nengoen, eta ama gaixoa base-  
rriko lanak egiten ikusten nuenez, zera  
pentsatzen nuen: “ene, nik horretan  
lagun diezaioket eta zer ari naiz hemen  
ikasketak egiten?”. Ez nuen gehiegi  
ulertzen ematen zizkidaten gai haiek  
ikasi beharra.

Ikasturtean zehar gehienak sus-  
penditzen nituen eta. Behin, literatura-  
ko gaia ekainean suspenditu eta iraile-  
an azterketa egitera joan nintzenean,  
zera pentsatu nuen: “joño, literatura-  
ko azterketan hiru orri betetzen baldin ba-

ditut, beharbada, bolumenagatik, ira-  
kurri gabe, aprobatu egingo zidak”. Eta  
idazlan bat egin nuen Leitzako mendi  
guztiei buruz. Nonbait irakasleak ira-  
kurri egin zuen eta suspenditu egin zi-  
dan.

Batxilergoko eskola haiek ematen  
zizkigun beste irakasleetako bat ber-  
tsoa gogoko zuena zen. Ni, ikasteko ga-  
raian, bertsoak idazten aritzen nintzen  
batzuetan. “Zer ari haiz, Inaxio?” galde-  
tzen zidan. “Bertso bat egiten”. Eta  
errieta egin beharrean, “ea, ea, zer mo-  
duzko bertsoa egin duan” erantzuten  
zidan. Giro goxoa bizitu nuen, baina ez  
nuen gehiegi ulertzen ikasketa haiek  
zertarako ziren. Zertarako ikasi behar  
nuen latina? Amorrua hartzen nuen eta  
ez nuen ulertzen haiek ikasi behar zire-  
nik. Ez nintzen ikasi zalea.

Orain, urteetan aurrera joan naize-  
nean, gai bat gogoko baldin badut,  
saiatzen naiz gai horri buruz irakurtzen,  
informatzen eta ikasten. Beste modu  
batera ikasten dut, jakin-minak bultza-  
ta. Eta lehen hori falta nuen. Edozer  
gauza ikasteko garaian, jakin-mina  
edukitzea da gakoa. ●



**“Gauza bat da ipuin bat idaztea -idazleen eskemak erabiltzea- eta beste bat,  
oso ezberdina, ipuinak kontatzea, kontalarien eskemaz baliatzea”.**

**Imanol Urbieta**

# IRRIEN LAGUNAK

KLUBA

[irrienlagunak.com](http://irrienlagunak.com)

EGIN ZAITEZ KIDE!





**Matrikula zaituz!**  
Aurrematrikula egiteko  
epea:

urtarrilaren 31tik  
otsailaren 11ra  
arte

**Zuk uste baino hurbilago,  
nahi bezain urrun  
hel daitezzen.**

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

